SAKANAKO ASTEKARIA • 2013ko lastailak 18, ostirala • 2. aldia • 436. zenbakia

GUAIXE.NET

PRES TOKIKOM

Ezkurdia Gonzalezen ordez lau eta erdian

Kirolak >> 12

Historian barrena ibiltzeko aukera emanen du Enneco, Haritzaren memoria parkeak. 2016rako zabaltzea aurreikusten da

Sakanerria >> 10

Gogor entseatu dute aurretik dituzten lau emanaldietan onena emateko. UTZITAKOA

Sakanako bihotzaren Taupadak

>>3

Dozena bat alkate Sakanarekiko errespetua eskatzen

Barcinak Sakanaz eman nahi duen kris-pazioaren eta intolerantziaren irudia ez dator bat errealitatearekin >>5

Egitekotan, zerotik abiatuta eginen da herri galdeketa

Ahalik eta pentsaera ezberdin gehien batu eta denen artean talde motorea sortzea egoki jo da >>7

Euskal Herriko gutun soziala idazteko gonbitea luzatu dute

Altsasun, ostegunean, 19:00etan >>5

Kontzeju etxeko lanak bukatuta, alokatzea falta

>>9

Parke berriarekin lakuntzarrak zoriontsu

>>6

Onddo lasterketa ez lehiakorra bihar Altsasun

>>11



Sakanako egileen lanak II. Altsasuko Arte Azokan

>>15

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzaileak • Alumninioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com

Izadi
ZORIONAK zure 7. urtebetetzean!! Muxu handi bat eta oso ongi pasa zure egunean!! Etxekoen partez.

Mikel Mazkiaran Segura
ZORIONAK potxoli! Oso egun zoragarria pasa, zure izeba eta amonaren partez. Muxu handi bat.

Onintze Lz. Gauna Etxagibel
ZORIONAK sirena!!! Hara non agertzen zaigun 6 urteko sirena itsasoko olatuen artean!!

Urritz
ZORIONAK!! Azkenean iritsi da zure eguna!! Ongi pasa eta merezi bezala ospatu zure 6.a. Etxeko guztien partez.

June
ZORIONAK Printzesa! Urtetxo bat gurekin, etxekoen partez muxu haundi bat. Maite zaitugu.

Maddi Gartziandia Bikuña
Urriak 15, hiru urte bete zituen etxeko poxpoliñak. ZORIONAK eta urte askotarako. Etxekoen partez.

Maite Murua
ZORIONAK gure etxeko motoristari, familia guztiaren partetik. 46 muxu!!!! Forza Valentino!!!!

Maritxu
ZORIONAK Maritxu! Maite zaitugun guztion partez zorionak eta urte askotarako!

Bazkideek deskontua

Bakarra: ~~3,50€~~

Bikoitza: ~~7€~~

urriak 18-24

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Pablo Carbonell: Canciones de cerca. Lastailaren 18an, ostiralean, 21:30ean Irurtzungo kultur etxean.

Desvarios varios eta Nao. Lastailaren 18an, ostiralean, 23:00etan Altsasuko gaztetxean.

Taupadak. Lastailaren 19an, larunbatean, 19:30ean eta 22:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. Fran Idareta, Haize Berriak banda, Irurtzungo, Etxarri Aranazko eta Altsasuko abesbatzak.

Antzerkia

Taim eta Bremengo musikariak. Lastailaren 19an, larunbatean, 17:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. **Yarleku.**

Erakusketak

Altsasuko II. Arte Azoka. Lastailaren 18tik azaroaren 8ra arte, astegunetan, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Proiekzioa

Proiekzioa. Lastailaren 20an, domekan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. **Doan.**

Zinema

La mejor oferta. Lastailaren 18an, ostiralean, 22:00etan eta lastailaren 20an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Herensugeak, haritzaren bihotzak. Lastailaren 20an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Hitzaldiak

Done Jakue bidea Sakanan: artea eta aztarnak. Lastailaren 18an, ostiralean, 19:30ean Uharte Arakilgo Zamartzen. **Hizlariak: Clara Fernandez Ladreda eta Emma Bonthorne.**

Euskera, un idioma que entra en casa. Lastailaren 22an, asteartean, 17:00etan Altsasuko Txioka Haur Ikastolan. **Hizlaria: Paula Casares, gaztelaniaz.**

Mugi zaitez parkinsonagatik. Lastailaren 24an, ostegunean, 18:00etan Altsasuko Iortia Kultur Gunean. **Hizlaria: Sara Diaz de Cerio, Nafarroako Parkinson Elkartearen koordinatzailea.**

Bestelakoak

The art confusion. Lastailaren 18an, ostiralean, 23:00etan Lakuntzako Sorgiñak tabernan. Jokin Alegria margolarik eta Dj Nestortxo.

Argazkilaritza

XXVIII. Altsasuko ferietako argazki rallya. Lastailaren 20an, domekan, goizez. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Deialdiak

Hipotekek kaltetutakoen Plataforma. Lastailaren 18an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Lastailaren 18an, ostiralean, 20:00etan, Irurtzungo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Lastailaren 20an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Pentsio duinak, murrizketarik ez. Lastailaren 21ean, astelehenean, 11:00etan Etxarri Aranazko plazan. **Sasoia.**

Sakanako Langabetuen Asanblada. Lastailaren 21ean, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

MARTINA ALTERNATIFEN:
Iruñeko Zinema Jaialdiko Alternatif saileran lau lan daude Nafarroako film labur onenaren saria eskuratzeko lehian. Horien artean Urko Mauduit irurtzundarraren Martina dago. Sarituen berri larunbatean jakinen da.

ezkaatza >>

SAKANA

Sakanako bihotzaren Taupadak

Larunbatean, 19:30ean eta 22:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. Aurreneko emanaldirako ez dago sarrerarik.

Eszenatokian 140 musikari eta abeslari izanen dira Fran Idareta laguntzen

Hiru abesbatzak eta banda Idaretarekin batera. UTZITAKOA

Mustutze handi baten bezperan gaude. Fran Idaretak sortu, moldatu eta ekoizturiko *Taupadak* ikuskizunaren mustutze bezperan. Irurtzungo akordeoilariak bere ideia gauzatzeko Haize Berriak bandarekin eta Irurtzungo, Etxarri Aranazko eta Altsasuko Erkudengo Ama abesbatzekin elkarlanean ariko da, "euskararen jatorri mitologikoetan sakontzen duen ikuskizun musikala" eskaintzeko. Nazioartean ospea duten Gorka Hermosa (bandoneoia) , Garikoitz Mendizabal (txistua) eta Joaquin Taboada (pianoa) izanen dituzte lagun artista sakandarrek.

Idaretak azaldu duenez, "entseguetan irrika eta zirrara giroa nabari da emanaldiak hurbildu ahala. Gogoa dago ederki egiteko eta gauzak aurrera eramateko".

Idaretak aitortu zuenez, ikuskizunak "merezi du. Asko. Gainera, ibarreko jendearendako da. Hemendik sortu den gauza da. Oso gauza bitxia. Nik nabari dut aspektu emozionalak garrantzi handia duela". Emanaldi bakoitzaren akaberan omenaldietarako tartea ere izanen da.

Sorrerako ideia

Idaretak azaldu digunez, duela mende batzuetako egileen usteetan oinarritu da ikuskizuna gauzatzeko. Haien arabera euskararen jatorria Sakanan legoke. Irurtzundarrak Bibliako kontuak ekarri zituen gogora: "Noeren kutxa Ararat mendian gelditu omen zen. Askok Aralar mendia zela uste izan zuten. Beraz, gizakien sorrera hemen hasiko zela uste izan da. Harrez geroztik, askok uste dute gizatasunaren jatorria hemen dagoela".

Beleixe Irratian (FM 107,3) Idaretak aitortu zuenez, "sinesmen hori, horregatik mitologiaren kutsadura hori, oso polita iruditu zitzaidan eta hortik ikuskizuna hornitzea… Gehien bat nire sustraiekin lotzen zelako". Akordeoilariak azaldu zuenez, "euskararen jatorria Sakanan zegoela, bitxikeria horretatik abiatuta beste zenbait gauza sortu ditugu. Esaterako, mitologian eta zenbait ipuin edo kondairetan barneratu gara. Musikaren bidez azaltzen ditugu". Ibarrean dugun mitologia aberastasuna goraipatu zuen Idaretak.

Emanaldiak

Lastailaren 19an, larunbatean, 19:30ean eta 22:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean.
Lastailaren 26an, larunbatean, 19:30ean Etxarriko frontoian.
Azaroaren 9an, larunbatean, 19:30ean Irurtzungo kiroldegian.

Sortzea

Bizpahiru urte ikuskizuna ontzen hasi zela. Ikerketa, antolaketa, kudeaketa, konposizioa, moldaketa. "Hemen gaude. Asko kostata. Guztioi, gehien bat arduradunei esker: Inma Arroyo , Alicia Armendariz eta Fermin Idareta (zuzendariak)". Musika zuzendaritzaz arduratu den Luis Orduñarendako hitz onak besterik ez ditu: "Luis gauzak lotu dituena izan da. Harremanak erraztu eta gauza horiek guztiak egin dituenak; izugarria da". Bandarendako ere hitz onak ditu. Alberto Gonzalez moldatzaileak erabakiak hartzen asko lagundu dituela adierazi zuen. "Zaila delako. 90 minutuko emanaldia, baina honetan lanean zazpi hilabete daramatzagu".

+www.guaixe.net

Programa

1. Ararat. Mari jainkosari deia
2. Bihotzean itsasargi
3. Lantz. Gorka Hermosarekin
4. Axuri dantza
5. Orreaga. J. Taboadarekin
6. Erro-uneak. Gloriosus sanctorum
7. Aitor. G Mendizabalekin
8. Mari
9. Aixita
10. Lingua navarrorum

Euskara gidari

"Zein da euskaldunon taupada? Zein da euskaldunon bihotza? Euskara. Hori da azken batean ikuskizunaren muina, zentzu sakona". Hala laburbildu du Idaretak. Ikuskizuneko gidaria, off-eko ahotsa, euskara izanen da, sortzailearen testuak emanez.

Lamiak, Aralarko jeinuak... mitologia presente izanen da ikuskizunean, baina Sakanatik atera eta Nafarroako leku garrantzitsuenetatik pasako da ikuskizuna: Lantzetik, Iturendik, Orreagatik pasako gara. "Egia esan, oso leku garrantzitsuak dira guretako. Uste izan dugu euskarak hor taupada garrantzitsuenak eman dituela. Horregatik, aipagai izanen ditugu".

Joateko arrazoiak ere zerrendatu zituen: "Sakandarren bihotzari buruz hitz eginen dugulako. Eta kantatuko dugulako. Sentituko dugulako. Hori da garrantzitsuena. Ikuskizun batera joan zaitezke. Baina ikuskizun hau oso berezia da. Sakandarrek egindako ikuskizuna, sakandarren sustraietan sartzeko, sakandarren bihotzean sartzeko eta hor sentitzeko. Nik ez dut halako ekimenik gogoratzen, zinez. Horregatik, bakarrik, joan beharko zinatekete". +www.guaixe.net

Musikari baten azken taupadak

"Nire azken taupada musikalaren aurrean nago. Nire ibilbide musikalaren azken ekimena izango da hau". Halaxe aurreratu digu Fran Idaretak (Irurtzun, 1976). Akordeoia eta eszenatokiak utziko ditu denbora familiari eta lanari eskaintzeko. Gizarte Laneko Etika eta Epistemologia doktorea da eta gaur egun Nafarroako Unibertsitate Publikoan irakaslea eta ikerlaria da.

Konpositorea, musika ekoizlea eta akordeoilaria, bi hamarkadako ibilbide oparoari agur esanen dio Idaretak Taupadak ikuskizunarekin. 20 urtetan 10 musika ekimen ekoitzi eta artista nagusi gisa interpretatu ditu. Gainera, haietako obra gehienen sortzailea izan da.

20 disko baino gehiagotan parte hartu du. Gainera, hainbat kolaborazio egin ditu, besteak beste: Enrique Ugarte, Carlos Nuñez, Kepa Junkera, Iñaki Salvador, Jose Ignacio Ansorena, Javier Garaialde, Joxan Goikoetxea, Juan Mari Beltran, Amaia Zubiria, Euskal Txalaparta Konpainia (ETXAK), Aurelio Sagaseta, Julian Ayesa, Francisco Javier Lopez Jaso, Aitor Furundarena edo Enrike Zelaia.

+www.guaixe.net

Non erabili

ARKUPE
ALTSASU
Erakuslehioen aldaketagatik % 50eko deskontuetatik gora.

TXIKITXO
ALTSASU
60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-txartel bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

NAMASTE YOGA
ALTSASU
www.namastecentro.es-en galdetu eskaintzen berri.

TIPI TAPA OINETAKOAK
ALTSASU
60 €ko erosketagatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

VIZU ILEAPAINDEGIA
ITURMENDI
30 €ko gastuarekin % 10eko deskontua.

ALDASORO HARATEGIA
ALTSASU
30€ko erosketa betengatik etxeko produktua opari.

ALFA INMOBILIARIA
ALTSASU
Etxe edo pisu baten erosketagatik 100 €ko txekea opari.

FLORY ILEAPAINDEGIA
ALTSASU
%10eko deskontua edozein zerbitzutan. 40 €tik gorako lanetan bekainen apainketa doan.

KIXKUR ESTETIKA ZENTROA
ZIORDI
30 €ko gastuarekin %20ko deskontua produktuetan.

IORTIA HORTZ KLINIKA
ALTSASU
%10eko deskontua aho garbiketetan eta hortz ateratzeetan. Azterketa doan.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

astekoa

Hara-kiri

Eduardo Galan

Attack, munduko justizia ekonomikorako existitzen den giza mugimenduaren web-ean irakurri nuen, eguneroko zutabean, FMI-k azken aldian argitaratutako txosten batean, dirudienez, zera dioela: "Herritarren bizi itxaropena luzatzea, arrisku finantziero bat da estatuen ekonomietarako". Argi dago, beti termino ekonomikoetan hitz eginez, agureak eta jubilatuak ez direla gizartearentzat pertsona produktiboak, gehienek ez baitute dirurik ematen ezta produktuak ekoizten, eta beraiei pentsio ridikuloa ordaintzeaz aparte, giza-estatutarako gastu pilo bat direla, baina gure agureei "arrisku finantzieroa" deitzeak mesprezu bat iruditu zitzaidan.

Ez dut uste gure eta datozen belaunaldikoak kapazak izango garenik gure guraso, aitona edo amonek egin duten lan adina egiteko, ezta gainbehera dagoen ongizate estatua mantentzeko. Beraz, errespetu pixket.

Christine Lagardek –FMI-ko zuzendariak- ere, dirudienez, dio, munduko ekonomia askok eta askok ongizate estatuarekiko adikzioa dutela, estatu horrek ematen dituen zerbitzuek pertsonengana-ko adikzioa sortuz eta soluzio bakarra, pertsonak, adikzio horietatik desengantxatzea dela. FMI-rentzat, pentsioak kobratzea, medikua-renera joatea edo dependentziarako dirulaguntzak ematea, tabakoa erretzea, kokaina esnifatzea edo heroina txutatzea bezalakoa da.

Badaukat nik beste soluzio bat, Japonian bezala, gure guraso, aiton eta amonei hara-kiri egitea eskatzea, hau da, labaina sabelean sartu erraiak atera arte eta, badaezpada ere, ziurtatzeko adikto hauek erditik kentzen dituguela, guk atzealdetik katana –japoniar ezpata- batekin, beraien burua moztu. Hilda txakurra, hilda amorrua.

Kexak, iritziak, iradokizunak: dudugalan@hotmail.com

hara zer dien

Klinikaren eskaintza

Josefina Arregui klinika ez da ohiko zahar etxe bat. Jarduera sozio-sanitarioa dauka, eta gaixotasun mentala duten adinekoak tratatzen dira bertan, jakintza-alor anitzeko tresnekin.

Arretarako programak

1. Ospitalizazio gabekoak

- Kanpoko kontsulta medikoa (Psikiatria eta geriatria) eta ebaluazio neuropsikologikoa.
- Fisioterapiako kontsulta (errehabilitazio fisikoa)
- Familiaren aholkularitza eta laguntza taldeak, AFANekin batera
- Eguneko zentro psikogeriatrikoa
- Psikoestimulazio lantegia Alzheimerraren hasierako faseetan

2. Ospitalizazioa

Zerbitzuen definizioa:

a) Kanpoko kontsulta medikoa eta ebaluazio neuropsikologikoa: Dementziak edo beste nahasmendu psikiatriko batzuk dituzten edo izan ditzaketen pertsonen diagnostikoa, tratamendua eta orientazioa.

b) Fisioterapiako kontsulta: aldakan ebakuntza izan dutenentzat, edo garuneko infartuarengatik mugitzeko arazoak dituztenentzat, etab. Patologia horiek errehabilitazio fisikoa behar dute, pertsonen autonomia handitzeko.

c) Familiaren laguntza taldeak: gaixotasunari aurre egiteko, familiari orientazioa eta entrenamendua ematen dioten taldeak.

d) Eguneko zentroa: dementziak edo beste nahasmendu psikiatriko batzuk dituzten gaixoentzako eguneko arreta.

e) Psikoestimulazio lantegia Alzheimerraren hasierako faseetan daudenentzat: estimulazio kognitiboko ariketak, dementziaren hasierako faseetan dauden gaixoentzat.

f) Ospitalizazioa: unitate honen helburua da ospitalizatu gabe tratatu ezin diren adineko dementziadunen diagnostikoa, tratamendua eta errehabilitazioa.

Josefina Arregui Klinika

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutunguztiak LABURTU eginen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Euskararen espaloitik ez jaitsi...

Nerea Mendizabal

Nola jaitsi igotzen uzten ez badizute? Hori da Sakanako euskara zerbitzuak bere azken ekintzekin lortu nahi duena. EHko txoko guztietan euskara ikasi nahi duen guztia esku zabalik hartzen da Altsasun eta Olaztin izan ezik.

Nola da posible euskaraz jolastu nahi duten haur eta gazteei ateak ixtea euskararen erabilera hutsaren hurrengoa den herri batean? Sakanako euskara zerbitzuak non ikusi du euskara ikasteko eta batik bat euskaraz jolasteko eskakizun berezi batzuk bete behar direla? Gogoa eta ilusioa besterik eskatu behar ez direnean?

Ekintza hauekin, espaloian poliki-poliki dabiltzan haurrak animatu beharrean espaloian jarraitzeko ilusioa eta gogoa besterik ez dituzue kentzen , nire ama-hizkuntzaren kalterako.

Sakanako Euskara Zerbitzuari

Izaskun Lobo Zubizarreta

Sagrado Corazón Ikastetxeko irakasle bat naiz eta dirudienez, gure 3 ikasleri Olaztiko " Udan Euskarazen" eta "Larunblain" parte hartzea galarazi zaie B ereduan ikasten dutelako.

Nire amonari txikitan, euskaraz hitz egiteagatik eraztuna jartzen zioten klasean eta hori gaur egun inork ez dugula onartzen uste dut; baina… ekintza hau ez al da haur batzuk, bere buruaren jabe ez diren haur batzuk, inozentzian bizi diren haur batzuk, kanpoan utzi, ateak itxi, etiketa zehatz bat jarri eta herri mailan baztertzea? Integrazioaren eta berdintasunaren aldekoak ginela uste nuen…

Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek egiten ez dutelako baizik.

Pertsonalki, noski D ereduaren aldekoa naizela, baina hobea iruditzen zait B eredua (%80 euskaraz) A eredua baino. Zorionez edo zoritxarrez, jende oso anitza ezagutzea tokatu zait bizitzan zehar eta ezberdinak onartzen ikasi dut. Olaztin, jarduerak euskaraz gehien behar dituztenei, ateak itxi zaizkie.

Egin dezagun denok batera, bakoitzak ahal duen neurrian euskararen alde; ez dezagun inor baztertu eta hezi ditzagun gure kimuak EUSKARAZ!

Urriaren 24ean Sakanako etorkizuna jokoan

Oihane Arrondo 3Mugak Batera Plataformako kidea

Udalaz gaindiko plan eta proiektuak UPrS ezohiko tresna dira eta udalen iritziaren kontra erabiltzen direnean, udalen eskumenenak urratzeko eta iruzur egiteko baliabide bihurtzen dira. Portland-en UPrS xede horrekin sortu zen, Olaztiko hirigintza ordenamendua eta Portland-en errausketa proiektua bateraezinak zirelako.

Hala onartu zuten batere lotsarik gabe sustatzaileek beraiek ere. Udal-eskumen lapurreta horrek eta UPrS-ri egiten zaion iruzurrak oso ondorio larriak ekarriko lituzke, askok eta asko adierazitako gaitzespenaren aurka, milaka tona zabor, plastiko, pneumatiko, lohi… erraustea baimenduko lukeelako.

24an bozkatuko da UPrS-en legea aldatzeko proposamena. Ekimenak ezohiko tresna hauen neurriz kanpoko aplikazioa zuzendu beharko luke. Adibiderik argiena Portland-en UPrS-a da.

3MB Plataformak, lege bat ezin dela proiektu jakin batendako bereziki egin uste du, neurriz kanpokoak eta iruzurtiak diren, udalen eskumenak saihesteko sortu diren eta gainera ondorio askoz ere larriagoak izango dituzten beste batzuk kanpoan utziz.

Koplowitztarren mesedetan herritarren osasuna eta baliabideak galtzeko arriskuan gaudelako. Legeak zuzena izan behar du. Beste era batera eginez gero, UPrS-en akats bera errepikatuko litzateke, hau da, iruzurra eta neurriz kanpoko nahikeria.

3MBren ustez, herritarrek ezingo lukete ez ulertu ez jasan Portland-en UPrS kriminalaren eraginpeko eskualdeen eta Sakanaren aurkako baztertze gehiago. Horren harira deituko diren mobilizazioetan parte hartzera animatu nahi zaituztegu

Guaixe

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net
GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675 • guaixe@guaixe.net
PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net • Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net • 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa
Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa
Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea
Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea, Erkuden Ruiz Barroso eta Maialen Huarte Arano
Zuzentzailea: Patxi Flores

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200 ale

LAGUNTZAILEAK:

Mank sakana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saileburuordetza

SAKANA

Dozena bat alkatek eskualdearekiko errespetua eskatu dute

Barcinak Sakanaz eman nahi duen krispazioaren eta intolerantziaren irudia ez dator bat errealitatearekin eta, oso kaltegarria da eskualdearen hazkunde ekonomikorako

Hilaren 2an egindako adierazpenetan Yolanda Barcinak esan zuen Sakana dela enplegu-suntsiketaren eta jarduera ekonomikoa sustatzeko giro sozialaren eredu faltaren paradigma. Ibarreko 12 alkatek eta Mank-eko buruak erantzun diote esanez, "adierazpen horiek errespetu falta ikaragarria erakusten dute azken bi urte hauetan enplegua sustatzeko ahalegin handiak egiten ari diren erakundeekin eta gizarte agenteekin". Alkateek nabarmendu dute Sakanan gogotsu lan egiten ari garela ibarra dinamizatzeko eta Plan Estrategikotik hasi eta hainbat adibide jarri dizkiote.

Hainbat hautetsi Mank-eko egoitzan. ARTXIBOA

Eskaerak

Barcina, Nafarroako Gobernuko lehendakaria denez, Sakanaren eta Nafarroa osoaren interesak defendatu behar dituela nabarmendu dute alkateek. Udalen eskumen eta baliabide falta gogora ekarri dute. Nafarroako Gobernuari "utzikeria eta moteltasun nabariak" leporatu dizkiote. Horregatik, "guztiok ardura hartu dugu irtenbideak bilatzeko eta proiektuak sortzeko, eskualdeak garapen iraunkorra lor dezan". Nafarroako Gobernura lankidetzan aritzeko jarrera irekia erakutsiz jo dutela, laguntza eskatuz eta, "hitzetatik harago, izan dugun erantzuna lausoa eta hutsa izan da".

2011ko udazkenean Sakanako Krisi Mahaiak egin zion eskaera aintzat hartzeko eskatu dute alkateek: egiazko solaskide bat izendatu Sakanako entitateekin lankidetzan aritzeko; egoera mingarria konpontzeko behar diren tresnak eta baliabideak jarri eta Sakanan zehazten ari den garapen estrategian aktiboki jokatu beharko du.

Sinatzaileak

Sakanako Mankomunitateko lehendakaria eta Irurtzungo, Arakilgo, Uharteko, Arruazuko, Lakuntzako, Arbizuko, Etxarri Aranazko, Bakaikuko, Iturmendiko, Urdiango, Altsasuko eta Olatzagutiko alkateak.

%72 baino gehiago

Galdutako lanpostu kopuru hori zortzi enpresa handi itxi eta deslokalizatu direlako izan da. Alkateen iritziz, Nafarroako Gobernua ez zuen zegokion eran jokatu, gure ibarrean egin zituen beste jarduketa batzuetan gertatu zen bezala.

Euskal Herriko gutun soziala idazteko gonbitea

Lastailaren 24an, ostegunean, 19:00etan, Altsasuko Gure Etxea eraikinean batzar irekia

Sakandarrek behin baino gehiagotan salatu baititugu eragiten diguten gaietan gobernuek hartutako erabakiak. "Larrialdi sozial eta nazionaleko egoeran gaude. Horregatik, Eskubide Sozialen Gutun bat hitzartzeko ardura hartu dugu geure gain". Idatzian jasoak utzi nahi dira bermatu beharreko oinarrizko eskubide ekonomiko eta sozialak; "euskal jendarteko kide guztiek bizibaldintza duinak iritsi eta beren erabakiak har ditzaten".

Euskal Herriko Mugimendu Sozial eta Sindikalen Asanbladak larunbatean gutunaren zirriborroa onartu zuen. Makina bat eragile bildu dira, eta "gaurko egoera errotik aldatzeko mugitzen hasi" dira. Gutun horretan "gure herrian pertsonetan oinarritutako beste eredu sozial eta ekonomiko bat eraikitzeko alternatiba onduko du". Lan horretarako, ordea, behar beharrezkotzat jo dute da sektore herritar zabalen parte hartzea.

Osteguneko bileran lehen zirriborroa aurkeztuko da. Prozesu parte-hartzaile bat izan nahi du, "ahalik eta sektore zabalenei zabaldua" eta, guztiak gonbidatuak gaude.

Ikasleek ere legearen kontra protesta egin zuten aurreko astean. TWITTER

Mobilizazioak hezkuntzan

Murrizketen kontra eta onartu den LOMCE legearen kontra protesta egiteko Nafarroan hezkuntzako hainbat eragile batu dira eta dinamika bateratua sustatu dute. Urriko ostegun guztietan mobilizazioak egiten ari dira ikastetxeetan. Gaur, esaterako, LOMCEri ez! dioten irudiak sortuko dituzte ikastetxe guztietan, horretarako bakoitzak eskura dituen baliabideak erabiliz. Heldu den ostegunean Iruñean eginen den manifestazioan parte hartzera deitu dute. Hileko azken ostegunean, berriz, ikastetxeetan elkarretaratzeak izanen dira.

barrutik kanpora

Euskaraz bizi nahi dut

Euskararen alde eta, euskaraz bizitzera bultzatzeko ahaleginak ez dira gaurkoak. Gizartean euskalgintzaren alorrean dihardugun taldeok maiz jarri ditugu abian eskola, lantegi, herri, auzo eta hiriak euskalduntzeko ekimenak. Euskaldunak gonbidatu, xaxatu, akuilatu nahi izaten dira euskara bihotzetik harremanetara eraman dezaten/dezagun. Oso maiz antolatzen dira honelakoak eta herritarrek "joan beharko dut", "banuen beste kontu bat, baina hau nola utzi?" edota antzekoak gogoan, erantzun egiten dute, beti.

Arakil eta Irurtzunen, igandeko Herri Ibilaldiak erantzun bikaina izan zuen. Haur eta gurasoak, batetik, gazte eta helduak, bestetik, gogotsu ibili ginen, kamiseta berriak soinean, zuri, euskaldun horri, nahiz, jakin ez arren, ikas dezakeen herritar orori aldarrikapen eta gonbit argia luzatuta: "Euskaraz bizi nahi dut". Ohartuta, euskaraz bizitzekotan, zu zeu ere, nire kamisetari begira zauden hori, behar zaitudala ezinbestean. Mintzakide nahi/behar zaitugula.

Irurtzunen eta Arakilen euskaraz bizitzeko nahia asetzeak ez luke zaila izan behar euskaldun faltarik ez delako. Borondate kontua da, nahia gauzatzea, dezakegunok urrats bat aurrera egitea.

Oharra: Itxipuruk antolatutako azken Ferian, liburuen postuan hainbat euskal hiztegi jarri omen zen salmentan. Eta den denak agortu. Denak saldu omen ziren, alerik utzi gabe. Erosleak, etorkinak. Datozkigunengan bada itxaropenik. Ahalegintzeko prest direnak, nahi dutenak, badira. "Euskaraz bizi nahi dut" adierazten ari zaizkigu. Euskaraz bizi gaitezen eskean, argi. Ez zaigu euskal solaskiderik faltako.

Aizpea Euskara Taldea



» Arakil / Irurtzun

Aurretik berotu egin zuten. IRURTZUNEUSKARAZ BLOGA.

Ibiltzen, euskaraz bizi nahi dutelako

Herri ibilaldian parte hartuz adierazi zuten ehun bat arakildarrek eta irurtzundarrek euskaraz bizitzeko nahia. Helduendako prestatutako ibilbidea 42 bat euskaltzalek egin zuten. 50 bat guraso eta haur izan ziren familia ibilbidean barna aritu zirenak. Jon eta Patriziaren animazioarekin primerako goiza pasa zuten bai txikiek, baita haien gurasoek. Euskaraz bizitzearen aldeko aldarria oinez egin ondoren, Irurtzungo plazan txalaparta eta trikiti doinuek egin zieten harrera. Guztiendako auzatea izan zen.

160

Kamixeta kopuru hori izan zen igandeko ibilaldian saldu zena. Goizean goizeko freskurak ez zuen lagundu haiek ikustarazten, baina eguerditik aurrera Euskaraz bizi nahi dut kamixetak gehiago ikusi ziren.

» Arbizu

Txistorra nagusi Arbizun

Txerria oso preziatua izan da baserritako ekonomian, izan ere, dena aprobetxatzen da. Arbizun ongi dakite eta horregatik txerria da txistor eguneko protagonista: zotolan txerria ikusteko aukera zegoen eta animalia horretatik lortzen diren hainbat produktu nola egiten diren ikusi ahal izan zen. Arbizuko txistorrak munduan lortu duen oihartzunaren irudia ikusi daiteke txistor egunean: ehunka bisitari hartu zituen herriak. Pintxo lehiaketara zazpi pintxo aurkeztu ziren, inoiz baino gehiago, eta saria ere handiena zen: 1000 euro. Txistorraz gain hainbat produktu erosteko aukera izan zen 32 postuetan.

Udalak 150 kilo txistor banatu zituen, ardoarekin lagunduta, 1,5 euroren truke. Trikitilariek musika jarri zuten eta txerriak ematen dituen hainbat produkturen emaitzak ikusteko aukera izan zen ere. "Etxean egiten genituen guk", esaten zuten askok emakumeak txistorrak garai batean egiten ziren modua erakusten zutenean. Txerri hankak eta belarriak ere egosi eta frijitu zituzten, baita tripotak ere.

Eguraldiak lagundu zuen eta horregatik goizean zehar jendea herria bisitatzera joan zen. Mari Carmen Arbizuk, Embutidos Arbizuko jabeak, salmenta ongi joan zela adierazi zuen. Goiza aurrera zihoala "mugimendu" gehiago nabaritu zela esan zuen. Dena dela, txistor eguneko garrantzitsuena ez dela asko edo gutxi saldu nabarmendu zuen, baizik eta Arbizuko txistorrari buruz hitz egitea. "Egun polita da eta hemengo txistorra gero eta fama gehiago hartzen ari da".

Saria Arbizun

ERKUDEN RUIZ BARROSO

Baxerri jatetxeko Amaia Berekoetxearen pintxoak irabazi zuen V. Txistor Pintxo Lehiaketa. Jatetxean lanean ari zenez Haizea Goñi 12 urteko alabak jaso zuen saria: txapela eta 1000 euro. Zazpi pintxo aurkeztu ziren V. Txistor Pintxo Lehiaketara, inoiz baino gehiago: *Aldapa*, Arbizuko Baxerri jatetxearena; *Txistor gozamena*, Etxarri-Aranatzeko Iturri eder tabernarena; *Udazkena*, Arbizuko Karrika tabernarena; *Beriain*, Uharte-Arakilgo Itxesi jatetxearena; *Ispitxistor*, Altsasuko Espejo tabernarena; *Kaxandra*, Arbizuko Kiroldegi tabernarena, eta *Sumendi*, Lakuntzako Kaletxiki jubilatuen tabernarena. Epaimahaiak aho batez aukeratu zuen Aldapa pintxoa: mihi biribilkia barruan txistorra zuela, ogi kostroia eta coulis edo txistor saldaz bustita eta patata konfitatuarekin. Epaimahaiak pintxoen estetika eta antolaketa, originaltasuna eta txistorraren erabilpena eta gustua eta zaporeen kontrastea kontuan izan behar zuen.

Epaimahaia sukaldari eta gastronomian adituek osatzen zuten. Javier Diaz epaimahaiko kideak adierazi zuen pintxoen maila urteekin hobetu dela. Irabazleak zapore, testura eta txistorraren erabileraren oreka ona zuela esan zuen; txistorraren "identitatea" nabaritzen zen. Txistorrak sukaldean "joko" handia ematen duela adierazi zuen.

» Lakuntza

Parkearekin, zoriona herrian

Urte bateko lanaren ondoren, erabilgarri dago jolas parkea. Haurrek irudikatutako zatia udaberrirako izanen da

Larunbat arratsaldean mustu zuten haurrendako jolas parkea. Adin guztietako lakuntzarrek auzolanean egina, haien ahaleginaren fruituaz gozatzeko eguna izan zen larunbatekoa. Asko izan ziren mustutze ekitaldira hurbildu ziren lakuntzarrak, baita aldameneko herrietakoak ere. Oso polita zela adierazi zuten denek. Haur eta heldu, guztiek, parkearen erabilera ona eginen zutela adierazten zuen konpromisoa sinatu zuten. Horiek Tiritatxorekin eta Ane Piratarekin adostu zituzten.

Parkea

Kirol pista (areto futboleko ate eta saskibaloi saskiekin), ping pong mahaia, haurrendako jolas parkea eta futbol zelai txikia daude parke mustu berrian. Egiteko gelditzen dena futbol zelaiko zati bat. Umeekin tailerrak eginen dituzte eta han landuko dute.

Parkea Martxan taldeko Jone Aretak esan digunez, "azken zatiarekin ez dugu presarik izan nahi. Batez ere, prozesuari eman nahi diogu garrantzia. Haurren erritmoa pixka bat errespetatu eta beraiek markatzen digutenaren arabera pixka bat kronograma markatzen joanen da". Aretak azaldu digunez, elementu ez egituratuekin osatutako jolas eremu bat osatuko dute: "bizitza arruntean edo ingurunean aurkitu dezakegun elementuekin: naturatik eratorritakoak (enborrak, harriak...) edo berrerabilitako materialak (pneumatikoak, plastikoak, oihalak...)".

Mustutzean haurrak eta helduak bildu ziren.

Ostiralean aurreneko saio egin zuten. "Saio esperimentala izan zen, ikus zezaten materialik gabe ere posible dela ongi pasatzea. Jostailuak ez direla garrantzitsuena. Haien ondorioa izan zen primeran pasa zutela. Lagunak zituztelako jolasteko eta irudimena erabili zutelako" argitu digu Aretak.

Oihane Uribe-Etxeberria zinegotziak adierazi zuenez, parkea egiteko "prozesua oso polita izan da eta abiapuntu izan daitekeen beste prozesu batzuk aurrera eramateko". Proiektuarekin jende asko inplikatu zela eta egindako lan handia nabarmendu zuen zinegotziak. Herriarendako oso proiektu positiboa izan zela azpimarratu zuen Uribe-Etxeberriak: "zerbaitean parte hartzen duzunean gehiago baloratzen duzu. Eta aurrera egiteko barruan dugun boterea ikusten dugu. Diru pixka bat lagungarria da, baina, azkenean, nahia eta gogoaren bitartez lortu dugu". Zinegotziak gaineratu duenez, "krisia ere baliatu beharko dugu alde positiboa bilatzeko, elkarlana martxan jartzeko eta kolektibitatea indartzeko".

Finantzabideak

Dena ez zen ospakizuna izan, goiz eta arratsaldez Parkea Martxan taldeko kideak bigarren eskuko azokan aritu zirelako. Aurrekoan baino gauza gehiago bildu zituzten saltzeko eta jende asko erakarri zuen. Antolatzaileen esanetan "oso arrakastatsua" izan zen azoka.

Jolas parkeko altzariak ordaintzeko dirua ateratzeko Parkea Martxan taldeak egutegi bat argitaratuko du. Hura kinta bakoitzeko haurren argazkiekin eta haien urtebetetze datekin osatuko dute.

Satrustegi

Kontzeju etxeko lanak despedituta, alokatzea falta

Satrustegiko Kontzejuak bere 15.147 euroko aurrekontuaren zatirik handiena kontzeju etxeko lanetara bideratu du, 17.785,31 euroko aurrekontua baitzuten. Batzar gela gainean dagoen etxebizitza alokatzeko asmoa du kontzejuak. Bere buru Jose Antonio Angulo Bachillerrek azaldu digunez lurrean isolatzailea jarri dute. Horrekin batera berogailua eta sukalde ekonomikoa jarri dute.

Lanek 3 bat aste iraun dute. Kisusgileen ondotik, Arakilgo Udalak udarako kontratatuko langileek egin dituzte margotze lanak. Udalak berak lan horiek egin ahal izateko 7.824,74 euroko diru laguntza eman dio kontzejuari. Bertako ekonomia aktibatzeko planaren barruan sartu zen aipatu lana.

Erantzunik ez

Satrustegiko hornidura sareak eta zorua berritzeko premiazko eskaerari Nafarroako Gobernua ez dio erantzunik eman. Egitasmoa Tokiko Azpiegituren lau urteko planean erreserban dago. Angulok esan digunez gobernuak 2015eko planean lan horiek jasotzen ez baditu udalak esku hartzea aztertuko luke. "Lan horiek egiteko gelditzen den Arakilgo herri bakarra da Satrustegi" adierazi du kontzeju-buruak.

Urbanismo irla

Horixe egitea proposatu du sustatzaile batek Satrustegi iparmendebaldean. 10 etxebizitza libre egiteko proposamena egin du. Angulok argitu digunez, "proposamena ez dator bat ibarreko hirigintza arauekin eta egokitzapena egin arte ez da onartuko Araudia denendako berdina da, ezin da urbanismo irla bat onartu". Aurretik toki berean beste sustatzaile batek babes ofizialeko 14 etxebizitza egiteko asmoa azaldu zuen, baina egitasmoa bertan behera gelditu zen.

Isolamendua, berogailua eta sukalde ekonomikoa jarri ondoren, berrituta.

Etxarri Aranatz

Ekimeneko kideak galdeketa eskaera udalean aurkeztu zutenean.

Egitekotan, zerotik abiatuta

Herri galdeketari buruzko erabakirik ez zen hartu Etxarri 2012+1 ekimenaren aurreko bileran

Deialdiari erantzun zioten 30 etxarriarren arteko iritzi truke eta eztabaida aberatsa sortu zela adierazi digute Etxarri 2012+1 ekimenetik. Inongo erabakirik ez zen hartu, baina herri galdeketa eginez gero baldintza jakin batzuk bete beharko lituzkeela eta herri erronka izan beharko litzatekeela ondorioztatu zuten.

Zerbait erabakitzen bada, zerotik hastea komeni zela ondorioztatu zuten bildutakoek. Horretarako ahalik eta pentsaera ezberdin gehien batu eta denen artean talde motorea sortzea egoki jo zen. Horrela herriko iritzien topalekua izan dadin taldea eta denen artean erabaki eta eraiki ahal izateko. Horrek, jakina, jendearekin egotea eta plangintza berria eskatuko luke. Baloratu zuten galtzekorik ez dagoela, ekimenaren bi urteko jarduna ikusita, ibilbidea emankorra dela baloratu zuten.

SAKANA

Programaren kartel iragarlea.

Isekan izen ematea zabalik

DBHn ikasleei zuzendutako Iseka aisialdi eskaintzan izena emateko epea luzatu egin da. Bakaiku, Iturmendi eta Urdiaingo Iseka taldea larunbatetan bilduko da, 16:30etik 18:30era. Talde mugikorra da eta hilabete bat herri bakoitzean, txandaka. Taldearen bigarren urtea da. Olatzagutiko Iseka, berriz, domeketan izanen da, 17:00etatik 19:00etara, Olaztiko Akelarre ludotekan (3. urtea dute).

Parkinsona ezagutzeko

Ostegunean, 18:00etan Altsasuko Iortia Kultur Gunean

Nafarroako Parkinson Elkartearen koordinatzaile Sara Diaz de Ceriok heldu den ostegunean gaitz horri buruzko argibideak emanen ditu. Hitzaldi baten bidez izanen da. 20 urteko eskarmentua duen elkarteak eta bere koordinatzaileak gaitzaren inguruko azalpenak ematearekin batera elkarteak Sakanan martxan jarriko duen programaren berri emanen du.

Burunda

Babestutako Gizarte Enplegua Sozialaren alde egin dute Udalek

Programa honen bidez 3 langile kontratatu dituzte

Gauza jakina da Nafarroako Gobernuak hainbat alorretan –hezkuntzan, osasungintzan, gizarte zerbitzutan, obretan...– egindako murrizketek edo diru-laguntza jaitsierek Udalak egoera oso zailean jarri dituela. Nahiz eta egoera konplikatua izan, krisia pil-pilean egon eta Altsasuko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten Udalak, Altsasuko, Olaztiko eta Ziordiko Udalak, zailtasun egoeratan egon, aipatu hiru Udalek 2013ko Babestutako Gizarte Enplegu Programaren alde apustu egitea erabaki dute.
Horrela, eta aipatu programarekin bat eginez, aipatu hiru Udalek hiru langile kontratatu dituzte hiru hilabeterako, lastailaren 1etik abenduaren 31ra arte, hain zuzen. Langile hauek Udalendako makina bat lan eginen dituzte aipatu epean.

Zuhaitzak kimatzen. ARTXIBOA

SAKANA

Adinduei kalean egindako lapurretez gaztigatu dute

Foruzaingoak jakinarazi duenez, azken aldian pertsona helduei kalean objektuak lapurtu dizkiete. Adinduei ezezagunak zaizkien eta atzerriko azentua duten emakume bat edo bi hurbiltzen zaizkie eta hainbat distrakzio modu erabilita gainean dituzten balioko objektuak lapurtzen dizkiete.

Atentzioa galarazteko lapurrak adinduek ulertzen ez duten hizkuntza batean aritzen dira, gormutu plantak egiten dituzte edo dirua edo jatekoa eskatzen dute. Adinduek izkin egin nahi izan badiete ere temati aritzen dira eta, behin kontaktua lortu ondoren, adinduek urrezko kateak edo erlojuak lapurtu dizkietela konturatzen dira. Halakoak Sakanako bi herritan izan direla azaldu du Foruzaingoak.

Maiatzean ere halakoak gertatu ziren. Orduan, sinadura bilketa bat edo antzeko aitzakiarekin, sakandarrak entretenitu eta bitartean balioko gauzak lapurtu zizkieten. Foruzaingotik ohartarazi dute halako lapurretak talde ibiltariek egiten dituztela.

Olatzagutia

Porlandegiko espedientea negoziatzez atzo bukatu zuten

Erredakzioa ixterakoan Madrilen bilduta zeuden aldeak. Cementos Portland Valderrivasek (CPV) taldeko sei porlandegietako 638 langileetatik 620ri eragiten dien Enplegu Erregulazio Espedientea (EEE) aurkeztu du, heldu den urte akaberara arte luzatuko litzatekeena. Olatzagutiakoari dagokionez, zuzendaria, giza baliabideetako eta harrobietako arduradunei ez beste gainontzeko langile guztiei eraginen lieke, 105i.

Azarotik indarrean legoke espedientea eta porlandegi bakoitzaren ekoizpen mailaren arabera jarriko litzateke indarrean, langileen artean txandakatuz. Langile bakoitzari 180 lan egunetan eraginen lieke. Espedientea indarrean den bitartean langabeziatik langileek jasoko dutenaz gain, enpresak zein diru kopuru osagarri emanen duen negoziatzen ari dira, besteak beste.

Portlanden EEE berrirako baldintzak negoziatzez bukatu zuten atzo.

46

Irailarekin batera 16 kaleratu izan dira porlandegian. Beste bi langile ikerketa eta garapen departamentuan lan bat despeditu arte jarraituko dute. Joan den urte akaberan, berriz, 28. Horien ondoren heldu da EEE.

» Olatzagutia

Aisialdi programetako hizkuntza irizpideekin bueltaka

Bi familiak haien alabak hartzeko eskatu dute. Mank-etik D ereduko ikasleei zuzenduta dagoela adierazi dute, baina hizkuntza proba egitea proposatu die

Haur eta gazteek euskara ikastetxeko hizkuntza gisa identifikatzen zutela eta kalean erabiltzeko zailtasunak zituztela ikusita, Euskaltzaleen Topaguneak aisialdiaren bidez horri buelta emateko proposamena landu zuen. Helburua da: lagun artean daudela hizkuntza informala landuz, euskararen erabilera bultzatzea. Euskaltzaleen Topaguneak ezinbesteko jo zuen parte-hartzaileek hizkuntza maila on bat izatea eta, euskararen erabilera sustatzeko programa zenez, D ereduko ikasleei zuzentzea erabaki zuen.

Iruñerrian programak izandako arrakasta ikusita, eta herrien egoera soziolinguistikoa kontuan hartuz, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak ibarreko zenbait herritara hura ekartzea erabaki zuen, horretarako eskarmentua zuen Topagunea kontratatuz. Hura da kudeatzen duenak.

Kexa

B ereduan ikasten duten 10 urteko bi neskaren gurasoak Arartekoan kexa aurkeztu dute. Amaia Aristuk, Araceli Cruzek eta Alberto Gilek, Teodoro Rodriguez lagunarekin batera, uste baitute haien alabak aisialdi programa horretatik "baztertu" dituztela. B ereduko ikasleak dira. Aurreko urteetan ez bezala, oharrik jaso ez zutenez, Mank-era jo zuten alabei izena emateko. "B ereduan ikasten zutela esan genuenean, kontsultatu beharra zutela esan ziguten".

Aurreko bi urteetan aisialdi programan parte hartu zuten. "Gustura dabiltza eta segitu nahi dute. Orain arte zergatik ez ziguten esan euskara mailaren inguruko ezer?" galdetu dute. Gurasoak kexu azaldu dira irizpide aldaketarekin, horretarako arrazoiez eta zergatiez informatu ez zaielako. Programa udal egoitza batean egiten denez, udalak esku hartu beharko lukeela ere uste dute.

Zergatia

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzutik nabarmendu nahi izan dute hizkuntzaren erabilera sustatzeko aisialdi programa dela, ez euskararen ezagutza maila hobetzeko. Zerbitzutik beretik aitortu dute aurreko urteetan D eredua eskatzeko irizpidea ez dutela zorrotz bete. "Baina ikasturteko bukaeran balorazioa egitekoan Sakanan eta Iruñerrian kexak izan ziren ikasle batzuk euskara maila kaxkarra izanik gaztelaniara jotzen zutelako, eta, ondorioz, taldekideek ere gaztelaniaz hitz egiten zutela, jardueraren helburua oztopatuz".

Amaia, Araceli, Alberto eta Teodoro, azalpenak eman ondoren.

Kexuaren berri jaso ondoren, Mank-en erabaki dute D eredutik kanpoko ikasleei hizkuntza maila proba egiteko aukera eskaintzea. Heldu den astean izanen litzateke. Haurren gurasoen ustez parte-hartzaile guztiei egin beharko litzaieke aipatu proba, bestela "gizarte bazterketa da". Mank-en ebazpena dutenean Adingabekoen Defendatzailearengana jotzea ez dute baztertzen. Aisialdi programa larunbatean hastekoa zen, baina hasiera atzeratu egin da.

Bitartean, UPNk Mank-en agintean den jarrera "bereizlea, baztertzailea eta sektarioa" erakusten duela salatu du.

» Altsasu

Udalaren kontratazioen hizkuntza irizpideekin mahai gainera

IU kexu azaldu da euskara eskatu delako. Alkatetzatik diote udal bilkuran plantilla organikorako onartutako hizkuntza perfilak besterik ez direla aplikatzen

Altsasuko Udalak bi kisusgil plaza betetzeko eta kiroldegiko garbiketa egiteko zerrenda osatzeko euskara ezagutza eskatu die interesatuei. IUk ohar bidez azaldu dutenez, "duela bi urtetik diskriminazio berri bat pairatzen ari gara, oraingoan gure hizkuntzagatik".

Koalizioko kideek azaldu dutenez Altsasun 980 langabe daude eta haietatik 800k ez dakite euskara. Sakanari dagokionez, 1763 langabeetatik 1280k euskara ez dakitela nabarmendu dute IUko kideek. Koaliziotik ziurtatu dutenez, udala Euskararen Legea "modu krudel, diskriminatzaile eta, apika, era alderdikoian interpretatzen ari da".

Altsasuko udaletxea.

OINARRIZKO MAILA

Alkatetzako taldetik azaldu dute udal bilkuran plantilla organikorako hizkuntza irizpideak onartu zirela. Eta gogorarazi dute IU abstenitu egin zela. "Udalaren gehiengoak langile bakoitzari zein hizkuntza maila jakin behar zuen zehaztu zuen. Ez da gauza bera testu bat sortu behar duen administrari bat edo lankideekin harremana izan behar duen langile bat".

Kasu horietan eskatu dena, zehaztu dute alkatetzako taldetik, "oinarrizkoena da, ulermen eta ahozko maila xumea. Euskaraz eginen dion lankidea ulertzeko. Defendatu dadila". Euskara udalean lan tresna izatearen alde egin dute alkatetzatik. Egunerokoan euskara lan-tresna izateko neurria da hizkuntza perfilak zehaztea. Udaleko sail guztietan lan-hizkuntza gisa eta lan-harremanetan gehiago erabil dadin, eta departamentu guztiek eskaintzen dituzten zerbitzuez baliatzeko dagokion hizkuntza gaitasuna eskatu beharra dagoela adierazi dute. Azkenik, alkatetzako taldeak "populistatzat" jo dute IUren oharra eta gogorarazi dute aurrekontuak onartzerakoan Mank-en euskara zerbitzuaren kontrako neurriak eta beste eskatzen dituela.

» Olatzagutia

Espainola udaletxean, "inposatuta"

Deituko diren ekintzetan parte hartzeko eta ekarpenak egiteko deia egin du herritar talde batek

Herenegun goizetik dago udaletxeko balkoian Espainiako bandera, Olatzagutikoaren, Nafarroakoaren eta Europakoaren ondoan. Bide judiziala azken muturrera eraman ondoren, epaitegiek bandera udaletxeko fatxada nagusian jartzeko agindua bete du udalak.

Hainbat olaztiarrek "eraso espainolista honen aurka gure erabateko desadostasuna argi eta garbi" adierazi dute. Nabarmendu dutenez, bandera arrotz hau udaletxean izanden bakarrean, indarraren mehatxu bortitzaren itzalpean izan da eta gaur egungo egoera ia berbera da, etsaia ez baita aldatu".

Espainiako bandera inposatu zaiela salatu zuten.

Agerraldian bildutakoek nabarmendu dutenez, "olaztiar gehienok ez dugu espainiar bandera gure sentitzen. Halako ekintzekin lortzen duten erreakzioa guztiz kontrakoa da: arrazoiz betetzen gaituzte gu espainolak ez garela lau haizetara oihukatzeko". Euren aberria Euskal Herria dela adierazi dute eta haiena "subirotasuna berreskuratu nahi duen herria" dela azpimarratu dute, "XXI. mendean gure etorkizuna libreki erabaki nahi dutela" gaineratuz.

Bestalde, PPko zinegotzi Oscar Alvarezendako "berri pozgarria" da udalak Nafarroako Ikurren Legea bete izana. **+www.guaixe.net**

SAKANA

EHBilduk Madrilen Udal Legearen kontra jo du

Botere instituzionala zentralizatu eta oinarrizko zerbitzu batzuen pribatizazioari ateak zabaltzen diela uste du

Koalizioko hainbat hautetsi, Ainara Aistaran Uharte Arakilgo alkateordea tartean zela, Nafarroako gobernu ordezkari Carmen Albari gutuna eman zioten, Espainiako Gobernuak sustatu duen tokiko administrazioen erreformaren kontrako argudioak emanez. Udal eta kontzejuen egungo eskuduntza batzuk desagerrarazi eta besteak murriztuko lituzkeela salatu zuten. 20.000 biztanletik beherako toki erakunde guztiak desagertu edo konpetentzia guztiak galtzeko arriskuan daudela nabarmendu zuten.

Lege erreforma berriak herritarrak kaltetuko dituela ziurtatu zuten EHBildutik, "zerbitzu publikoetan eta prestazio sozialetan eragin zuzenak izango baititu legeak, bai kalitatean baina zerbitzu horien estaldura mailan". Udal langileengan murrizketak, azpikontratak eta ur hornikuntza, hiri hondakinen tratamendua eta bestelako zerbitzu publikoen kudeaketa negozio pribatua bihurtu nahia egotzi dio EHBilduk lege asmoari. Bestelako eredu politiko, ekonomiko eta sozialaren alde agertu ziren hautetsiak.

EHBilduko hautetsiak ordezkaritzaren atean. UTZITAKOA

SAKANA

Sakandarrak Madrilgo akusatuen aulkian

11 urteko instrukzioaren ondoren, atzo hasi zen 35/02 sumarioko epaiketa Espainiako Auzitegi Nazionalean. Bost hilabete iraungo dute ahozko saioek. Dena ETA da tesiaren barruan HB, EH eta Batasunaren kontrako epaiketan 36 euskal herritar epaituko dituzte, haietako bi sakandarrak: Juan Kruz Aldasoro eta Jaione Intxaurraga. Etxarriarrarendako fiskaltzak 10 urteko espetxe zigorra eskatu du eta 8 urtekoa arbizuarrarendako.

Bi ildo ditu hasi berri den auziak. Alde batetik, lan politikoa egiteagatik ETAko kide direlako auzipetuena. Eta, bestetik, herriko tabernena. Taberna eta elkarte horien bidez ETA finantzatzen zela leporatzen zaie akusatuei. 110 ordezkariek Madrilera joan beharko dute. Horien artean Baltasar Garzonen aginduz itxi zuten 2002ko agorrilaren 26an Altsasuko Herria Eginez elkarteko ordezkariak daude. Juan Manuel Alzelai atzo han izan zen.

Herritarrek plaza "okupatu" dute Guardia Zibila "ospa" egiteko eskatuz

Jai egun "arrotza" da lastailaren 12a eta horregatik sakandarrek Altsasuko plaza inguratu zuten Guardia Zibila Euskal Herrian soberan dagoela adierazteko. Ospa mugimenduak deituta ehunka pertsonak plaza "okupatu" zuten herriarena dela adierazteko. Guardia Zibilaren "azkeneko okupazioa" Altsasuko plazan Ospa Egunean, abuztuaren 31n, izan zela salatu zuen Ospak. Egun horretan ehun Guardia Zibil baino gehiago eta helikopteroa izan zirela oroitarazi zuten. Sakanako herritarren gehiengoaren aldarria isilarazi nahi dutela kritikatu zuten.

Herritarrak plaza inguratu zuten ospa! esateko. ERKUDEN RUIZ BARROSO

Europa Batasuneko biztanleko polizia gehien duen herrialdea da Euskal Herria: sei polizia mila biztanleko. Nafarroan 52 kuartel daude eta horietako bi Sakanan daude. Guardia Zibilak euskal herritarrak "bahitu, erail, torturatu, jarraitu, mehatxatu, identifikatu eta xantaiatu" dituztela salatu dute: "Espaniar identitatea armen bidez inposatu nahi dute eta euskal herritarron eskubideak zapaltzera etorri dira". Hortaz, Guardia Zibilak Sakanatik "alde" egitea exijitu du Ospak.

Azkenetan Altsasun hamarnaka edukiontzi eta bi auto kiskalita agertu ziren, eta Ospatik "indar errepresiboen estrategia" aski ezaguna dela nabarmendu zuten: "esku beltza dago ekintza hauen atzean". Bi altsasuarrek Iruñeko Guardia Zibilaren komandantzian deklaratu behar izan dutela gogorarazi zuten, horietako bat Altsasuko alkatea da. "Aldarri zilegi baten eta horren alde lan egiten duten pertsonen kriminalizazioa bilatzen dute".

Altsasuko hainbat alderdien jarrera kritikatu zuen mugimenduak. Izan ere, gertaera errepresiboen aurrean "Alde Hemendik aldarria" ez zabaltzea eta mobilizaziorik ez egitea gomendatu zieten Ezker Batuak, Geroa Baik eta PSNk: "Guardia Zibilak probokatzen ditugulako". Haiek ibarretik ospa egin eta errepresioarekin amaitzeko indarrak biltzera animatu zuen Ospak.

Altsasu

Feriak hemen dira

Domekan abeltzainak berriro herri guneaz nagusituko dira, haien azienda ekarrita. Baina izanen dira bestelako salgaiak ere herrian barna barreiatutako postuetan ere. Artisau produktu ugari eskuratzeko aukera izanen da: patea, eztia, babarrunak, ogia, pastelak, gazta, kontserbak, txistorra, taloak, txokolateak, hestebeteak, etab.

Egitaraua

Lastailak 19, lastaila

11:00etan Altsasuko ferietako ikastetxeen arteko XXXIV. krosa. Irteera Foru plazatik.
12:00etan VI. Onddo lasterketa (ez lehiakorra). Irteera Foru plazatik.
12:00etan Kalejira Burundar Txistulariekin.
17:30ean Erraldoi eta buruhandiak Iortia Kultur Gunetik aterako dira. Bukaeran, japoniar bonbak Foru plazan.
19:30ean Taupadak kontzertua Iortia Kultur Gunean.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Tximeleta taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa Foruen plazan.
22:30ean Taupadak kontzertua Iortia Kultur Gunean.
24:00etatik 3:00etara Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

Lastailak 20, domeka. Feria

9:00etatik 14:30era Ganadu azoka Ferialeku kalean.
Zaldi lehiaketa Ferialeku kalean.
Nekazaritzako elikagien azoka, Gartzia Ximenez kalean eta Foru plazan.
Erreminten eta makinen erakusketa, Otadiako Kristo deuna inguruan.
Azoka txikia (arropak, oinetakoak...), Baratzakobide plazan.
Ardi ganaduaren erakusketa Zubeztia plazan.
XXVII. argazki rallya.
II. Sakanako arte azoka Iortia Kultur Gunean.
11:00etatik 13:00etara Zaldi ibilbideak txikiendako, Otadian.
12:30ean Zaldi lehiaketako sarien ematea, Foru Plazan.
16:30etik 18:30era Zaldi ibilbideak txikiendako, Baratzakobide plazan
17:30ean Gizon-emakume proba, harriekin, Foru plazan.
19:00etatik 22:00etara Dantzaldia Bixenterekin Foru Plazan.
19:30ean Japoniar bonben jaurtiketa.
21:00etan Zezensuzkoa Foru Plazan.

Peñen egitaraua

Lastailak 18, ostirala

18:30ean Haurrendako jolasak.
23:00etan Kontzertuak gaztetxean: Desvarios varios eta Nao.

Lastailak 19, larunbata

13:00etan Triki poteoa.
15:00etan Herri bazkaria.
17:00etan Elkarteetatik poteoa, kalejira txarangarekin eta merienda.
20:30ean Jaitsiera.
6:00etan Gosaria, gaupaseroen argazkia eta jokoa.

Etxarri Aranatz

Gaztetxearendako beste kokapen bat

Azken udal bilkuran PPk mozioa aurkeztu zuen udalari eskatuz gazteen kontzertu eta gauetako festak egiteko beste kokapen bat bilatu dezala. Irailaren 7an izan zen kontzertuan musikaren zaratak batzuei loa eragotzi eta kontzertuak eragindako zikinkeriak herritar askoren ondoeza eragin zuela argudiatu zuen. PPko kideak herritik kanpo karpa bat jartzea eta tabernek barra jartzeko aukera izatea proposatu zuen. NaBaitik azaldu zuten kontzertuak ez direla astero izaten eta "soinua ez dela hainbesterainokoa". Garbitasunarekin zerbait egin beharra zegoela nabarmendu zuten. Bildutik kokapen zehatz baten proposamena eskatu zioten eta garbiketaren arazoa konpontzeko lanean daudela azaldu zuten. Bi koalizioek mozioaren kontra eta popularrek alde bozkatu zuten.

Izurdiaga

Brundarren Garesko erromesen monumentua

Eduardo eta Gerardo Brun Irisarri anaiek haien aita Gerardok sortutako monumentua asteburuan zaharberritu dute. Egiteko horretan izurdiagarrek forja tailerreko ikasleen laguntza izan dute. Monumentua gaizki zegoela eta gurutzea, pordoia eta erromesen maskorra falta zituela ikusita hura zaharberritzeko proposamena egin zioten Garesko Udalari. Hark onartu eta haiekin batera egitekoan parte hartu dute Garesko eta Nafarroako Donejakue bidearen Lagunen Elkarteak eta herriko Jakue hotelak. Han zaharberritu dute.

Forjariak monumentuan. ENTRETO2

Monumentua

Nafarroako Diputazioak egindako enkargu baten ondorioz sortu zen Garesko erromesen monumentua. 1965a konpostelar-urtea zen eta Gerardo Brunek monumentua egiteko enkargua jaso zuen. 1965eko agorrilaren 29an mustu zen monumentua. Bi metro luze eta 500 kiloko pisua du. Orrega eta Somportetik abiatzen diren bideak elkartzen diren puntuan dago kokatuta eta, horregatik, bere oinarrian idatzia dago handik aurrera bide guztiek bat egiten dutela.

» Etxarri Aranatz

Historian barrena ibiltzeko aukera

Baskonia eta Nafarroako Erreinuko memoria historikoa berreskuratzeko xedea duen interpretazio zentroa irekitzeko bidea hasi da. *Enneco*, Haritzaren memoria Nafarroa Bizirik Fundazioaren egitasmoa da. Etxarri Aranatzen eraikiko dute "bisitariei leku pribilegiatu batean ibiltzeko aukera" ematen duelako. Udalak baimena eman zuen. Interpretazio zentroa baino gehiago izatea nahi dute: ikerketarako, oroimenerako, hausnartzeko eta dibulgazio lekua izatea nahi dute.

Interpretazio zentroaren egitasmoa gabezia bati erantzuteko sortu dela diote Nafarroa Bizirik Fundaziotik. Historia politikoa ezagutzera eman nahi dute eta "konkistatzaileek eragindako mendeetako akulturazioaren iluntasunetik ateratzen lagundu". Hurrengo belaunaldiei "ekarpen oparoa" uzteko asmoz abiatzen da proiektua. Gaian espezialistak eta euren ekarpen historikoak eta herritarren arteko topagunea izatea nahi dute. Leku dinamikoa, modernoa, elkarreragilea eta etengabe berriztagarria eta berritzailea sortu nahi dute. Horretarako, tresna tekniko guztiak eta metodo pedagogikoak izango dituela esan dute.

Etxarri Aranatz aukeratu dute haritza dagoelako ideiaren oinarrian eta Aralar mendilerroa eta Urbasa-Andia natur parkearen artean dagoelako. Gainera, Sakanako herriak tradizioen, historiaren eta artearen adibidea direla diote fundaziotik.



Parkearen planoa.

Aurreikuspena

Proiektua eta finantziazio plangintza hiru atal nagusitan banatzen da: aurreproiektua, martxan jartzea eta garapena. Aurten behin betiko proiektua aurkeztu nahi dute eta hurrengo urtean eraikuntza lanekin hastea nahi dute. Interpretazio zentroa 2016an irekiko da eta hurrengo urteetan proiektua handitzea nahi dute.

Enneco, Haritzaren memoria interpretazio zentroko eraikin nagusiak hainbat arlo jorratuko ditu: nortasuna, mitoak, Nafarroako errege eta erreginak, ondare arkitektonikoa, gertaera historikoak eta abar. Arlo bakoitzak gela bat izango du.

Hasteko

Fundazioa buru-belarri ari da proiektuan lanean. Nafarroako Gobernuaren baimena jaso ondoren, urtea despeditu aurretik parkearen eremuaren garbiketa partziala egitekoa asmoa dago, espazioaren behaketa topografikoa egiteko. Lan horiek egitean 10 cm baino gehiagoko diametroa duten landareak mantendu beharko dira, baita haritz landare txikien eremuak, eta hainbat gorosti eta elorri ere. Garbiketa egiteko plangintza eginen dute fundazioak eta udalak eta ondoren auzolana deituko da.

Finantziaziorako hainbat aukera

Laguntzaileak, erakusketa aretoetan laguntzeko interesa duten markek.
Mezenas, noizbehinka dirua ematen dutenak.
Sustatzaileak, urtean 1.220 euro jartzen dutenak.
Babesleak, urtean 144 euro ematen dutenak.
Adiskideak, urtean 72 euro jartzen dutenak.
Bestalde, Nafarroako Bizirik fundazioari 2000 eta 6000 arteko dohaintza ematen diotenek Nestor Baterretxearen Enneco eskulturaren erreprodukzioa jasoko dute.

MOTZEAN

Dohatsu izendatuak

Elizkizun handi batean, senideak barne 20.000 pertsona baino gehiago bildu ziren, elizak igandean 522 erlijio gizon eta emakume beatifikatu zituen. Guztiak ere Espainiako Gerra Zibilean hildakoak ziren. Angel Amato kardinalak zuzendu zuen meza eta Francisco aita santuaren grabatutako mezu bat eman zuten. Eliza katolikoko buruak egoismoak eta nagikeriak baztertzea eskatu zuen, kristau izanik anaitasuna bilatzera animatu zuen, "ekintzekin eta ez hitzekin".

Etxeko lanak nola banatu?

Bateragarritasunari buruzko tailerra urriaren 25ean, 15:00etan, Altsasuko Ludotekan

Altsasuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Bateragarritasunaren aldeko Altsasuko III. Itunak eta Altsasuko ludotekak "Lana, familia eta bizitza pertsonalaren bateragarritasuna. Erantzunkidetasuna eta etxeko lanen banaketa" izeneko doako tailerra antolatu dute 25erako. Gurasoei eta interesatu guztiei zuzendutako tailerra da eta Altsasuko ludotekan eskainiko da, 15:00etatik 16:30era. Eguneroko bizitzan kezkatzen gaituzten gaiak aztertzeko aukera bikaina eskainiko du tailerrak.

IZENA EMATEKO

Ondoko telefonora deitu behar da, 948 467 662 telefonora, 21era arte.

GRUPO TANATORIO IRACHE
TANATORIO TALDEA
948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

Joaquin Senar Goldaracena
Zure bizimodua
zure gustokoa izan da.
Azken momentura arte
Zalbide, ardiak eta gazta
izan dituzu zure bihotzean.
Zue ilebak
Lizarraga-Ergoiena

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu
Bidali mezua zorion@guaixe.net-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Etxarri Aranatzen pisu bat alokatzen da. Erdialdean dago, berritua eta altzairuekin, sukaldea, biltegitxoarekin, egongela, 2 logela, komuna eta kamarotea. Telefonoa 629 91 47 24.

Opatutakoak / galdutakoak

GALDUTAKOAK

Lotuta zeuden bi ezkontza eraztun galdu dira. Irailaren 16-20ko astean Altsasun edo Etxarrin. Batean SA eta bestean SG inizialekin eta ezkontza datarekin 11-21-64. Opatzen dituenak, mesedez, Guaixeko bulegora ekar ditzala.

Ikastaroak

AESek ikastaro hauek antolatu ditu. Planoen interpretazioa, 45 ordu, urriaren 21etik azaroaren 21era; Enpresa blog eta orrialdeen sorrera, 30 ordu, urriaren 28tik azaroaren 25era; Ingelera C1 (aurreratua), 60 ordu, azaroaren 18tik urtarrilaren 30era; 2D aurreratua eta 3D planoen diseinua, 40 ordu, azaroaren 25etik urtarrilaren 20era.

Cederna Garalurrek ikastaro hauek antolatu ditu. Lehen sektorean eta zerbitzuenean lanean ari diren profesionalei eta langabeei zuzenduta dago. Sormena zure enpresan; berrikuntzak bezeroa abiapuntu hartuz, lastailak 18,23 eta 30 eta azaroak 6,13 eta 20 Arbizun, 9:00-14:00. Informazio gehiago, 948 56 70 10 telefonoan eta info@cederna.es, sakana.admon@cederna.es helbide elektronikoetan.

Altsasuko udal ikastaroen eskaintza. Tailerrak: heltzeko plazerra, autoezagutza eta garapen pertsonala, ahalduntzea. Informazio gehiago iortia@altsasu.net, 948 56 42 72.

UGT sindikatuak antolatutako ikastaroak. Psikomotrizitate geriatrikoa; Electrezitatea II; Zeharkako orga jasotzaileak erabiltzeko gidatzailea. Informazio gehiago 948 46 71 20.

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea http://www.ifes.es

JAIOTZAK

- **Mikel Huarte Fernandino,** urriaren 2an Uharte Arakilen.
- **Mattin Lazkoz Etxebeste,** urriaren 8an Lakuntzan.
- **Uxue Bakaikoa Artola,** urriaren 8an Lakuntzan.
- **Koldo Gasataminza Aldasoro,** urriaren 10ean Olaztin.

EZKONTZAK

- **Carlos Macho Villaverde eta Ana Belen Martin Valero,** urriaren 12an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

PILOTA

IRURTZUNEK ONGI HASI DU NAFARROAKOA: Hasi da Nafarroako Senior Mailako Pilota Txapelketa. Lehen mailan Irurtzunek Buruzgain menpean hartu zuen Banakakoan (18-7) eta Binakakoan (22-11).Ongay, Mitxelena eta Armendariz aritu ziren.

kirola >>

Frontenisa

Urdiaingo I. Frontenis Txapelketa antolatu dute

Izena ematea zabalik dago urriaren 26ra arte

Urdiaingo Gazte Asanbladak Urdiaingo I. Frontenis Txapelketa antolatu du. Bertan parte hartu nahi duten bikoteek izena ematea zabalik dute, urriaren 26ra arte. Izena emateko ondoko telefonoetara deitu behar da: 606 851 602 edo 639 571 095. Bikote bakoitzak 10 euro ordaindu behar ditu. Momentuz 15 bikotek eman dute izena. Txapelketa azaroaren 2an hasiko da eta partidak asteburutan jokatuko dira.

Herri kirolak

Gizon-emakume proba Altsasun

Altsasuko ferietan pilota partida profesionalak ziren jokatzekoak igandean. Baina Altsasuko Udalak adierazi duenez, kanpoko arrazoiak direla medio, bertan behera gelditu da pilota jaialdia. Horren ordez, igandean, 17:30ean, Altsasuko Foru plazak Gizon proba jaialdia hartuko du. Bi talde lehiatuko dira, Urretxu eta Berrobi. Talde bakoitzak 20 minutuko epea izango du lan egiteko, jarritako pisua mugitzeko. Bestalde, Ibarrako nesken taldeak erakustaldia egingo du.

Gurean gizon eta emakume probak ez dira ohikoak; eta, horregatik, herri kiroletan zerbait desberdina ikusteko aukera polita eskaintzen digute Altsasuko feriek.

Atletismoa

Onddoen artean korrika

Emakumeei dei berezia

Urtero moduan, gonbidapen berezia egin zaie emakumeei. "Emakumeei gehiago kostatzen zaie ateratzea, baina badakigu askok korrika egiten dutela. Onddo lasterketetan parte hartzera animatu nahi ditugu" adierazi du Dantzaleku-Sakana klubeko ordezkariak. Aurreko urtean 39 emakume aritu ziren, zenbaki polita, "baina aurten 50 animatuko balira... mundiala!" dio Bergarak.
Aurten korrikalariei banatuko zaien kamiseta emakumeengan pentsatuz diseinatu dute. "Kamiseta tekniko polita egin dugu, emakumeen taila kontuan hartuta, izan ere, normalean, lasterketetan ematen diren kamiseten tailak gizonezkoenak baitira. Onddoen lasterketan ariko diren emakumeei dei egiten diegu proba hasi baino lehen aurtengo kamiseta jaso dezatela, kamiseta fuksia polita, eta lasterketa kamiseta jantzita egin dezatela" aipatu digu Peio Bergarak.

Bihar, 11:00etan, 34. Eskola Arteko Krossa jokatuko da Altsasun, eta 12:00etan VI. Onddo Lasterketa

Dantzaleku Sakana atletismo klubak, hainbat babesle eta laguntzailerekin batera, VI. Onddo Lasterketa antolatu du bihar, larunbatean, 12:00etan, Altsasuko ferietan. Helburua, besterik gabe, atletismoaz gozatzea da, Dantzaleku, Basoitxi eta San Pedro zelai paraje ederrean barna, onddoak ateratzen diren tokian, hain zuzen.

Onddo lasterketa proba ez lehiakorra da, Sakanan ospatzen den kross herrikoiena, izena ematea dohainik baita, eta ez da klasifikaziorik egiten. "Atletismoa sustatu nahi dugu. Zapatilak jantzi eta besterik gabe korrika egitera ateratzea. Egun polita pasatzea da kontua, paraje ederretan korrika eginez eta emakumeei parte hartzeko gonbite berezia eginez" dio Dantzaleku Sakana klubeko Peio Bergarak.

Sakandar guztiei bertan aritzeko gonbitea egiten diete antolatzaileek. "Horregatik ibilbideak 6,6 km-ko distantzia du, nahiko eramangarria, eta mota guztietako jendea erakarri nahi dugu: lasterketetan aritzen direnak, euren kabuz korrika egiten dutenak baina lasterketetara ateratzen ez direnak, familiartean edo lagunartean aritzen direnak… baina lehiakortasunik gabe, asmoa ongi pasatzea delako" gaineratu du Bergarak.

Joan den urtean 190 korrikalari aritu ziren proba nagusian eta 90 kategoria txikikoetan. Eguraldia lagun, antzeko parte hartzea espero dute antolatzaileek.

Babesleei eskerrak

Proban parte hartzeko ez da kuotarik ordaindu behar, kirola sustatzea baita asmoa. "Horregatik bihotzez eskertu behar dugu babesleek emandako babesa, aipatu proba ospatzea ahalbideratzen dutelako" nabarmendu du Peio Vergarak.

Proba ez lehiakorra denez, ez da sailkapenik ez sari metalikorik egongo. "Horren ordez opariak banatuko ditugu" gaineratu du Bergarak. Antolakuntzak onddoen eguneko 200 kamiseta termiko banatuko ditu eta helmugan La Vitorianak emandako 190 berlinak eta BMk emandako edariak dastatuko dira. Horretaz gain, hainbat lote zozketatuko dira parte hartzaileen artean: 4 saski onddo, txistorra loteak (Juan Antonio Galarza), pate Katealde loteak, ardo botilak eta beste.

34. Eskolarteko Krosa, aurretik

Onddoen Lasterketaren aurretik, goizeko 11:00etan, 34. Eskolarteko Krossa jokatuko da Altsasuko Foruen plazako inguruetan. Eskola-kirola sustatzeko sortu zuten aipatu proba duela 34 urte orduko Altsasuko 5 ikastetxeek, Iñigo Aritza Ikastolak, Zelandik, Korazonistek, Kaputxinoek eta La Compasionek. Helburu berberekin antolatzen jarraitzen da, eta prebenjaminak, benjaminak, kimuak eta haurrak ariko dira korrika. Hortik gorako kategoriak Onddoen lasterketan ariko dira. Helburua atletismoa bulkatzea denez, ez da ez sailkapenik ez saririk egongo. Guztiek batidoa eta hainbat opari jasoko dituzte. Iaz 90 gaztetxo aritu ziren eta aurten parte hartzea igotzea nahiko lukete.

13. Sakanako Herri Lasterketan izena ematea zabalik

Urriaren 26an jokatuko da, 17:00etan, Etxarri Aranatzen

Mank-ek 13. Sakanako Herri Lasterketa- La Burundesa Sari Nagusia antolatu du urriaren 26an Etxarri Aranatzen. 17:00etan proba nagusia jokatuko da eta aurretik, 16:00etan, kategoria txikiko lasterketak. Kategoria txikikoek, juniorrek barne, dohainik dute parte hartzea, eta aurretik edo egunean bertan eman ahal dute izena. Baina proba nagusian parte hartu ahal izateko aurretik eman behar da izena, derrigor.

Ondoko web gunean eman behar da izena, urriaren 25era arte: www.kirolprobak.com (txip horia dutenek 10 euro eta alokatzeko txipa dutenek 11 euro).

Sakanako X. Atletismo Kopa

Egun, honela dago sailkapena: emakumezkoetan Erkuden San Martin doa lehena, Jone Pelaez 2.a eta Ixa San Martin 3.a. Gizonezkoetan, Javier Moreno, Felix Benjumea eta Juantxo Arregi dira buru. Sailkapen guztia: www.sakana-mank.com.

Izena emateko

www.dantzalekusakana.com web orrian, ostiralean. Proba eguneean, Altsasuko Gure Etxean.



Pilota

Berriro Mendizabalen kontra

Lau t´erdia.
1. jardunaldia

Mendizabal III.a – Ezkurdia Jaunarena – Idoate (Igandean 17:00etan, Eibarren. ETB1).
Elezkano II.a – Olaetxea (Igandean Zaratamon).
Urrutikoetxea – Saralegi: (ostiralean, 22:00etan Balmasedan. ETB1)

Enpresek Lau t´erdiko Txapelketa erakargarria prestatu dute, izan ere ikusle gehien biltzen dituen txapelketa baita. Guztira 16 pilotari ariko dira eta Joseba Ezkurdia izango da sakandar bakarra. Nahiz eta lau t´erdiko atarikoan txapelketatik kanpo geratu Mendizabalen kontra 22-10 galdu eta gero, oraindik lesionatuta dagoen Sebastien Gonzalez pilotaria ordezkatuko du arbizuarrak. Lau t´erdian jarraitzeko beste aukera bat du Ezkurdiak.

Hasierako bi jardunaldiak kanporaketa sistemarekin jokatuko dira, eta final laurdenak ligaxka jokatuz erabakiko dira. Aurreko kanporaketetan sailkatzen direnek Olaizola II.a eta Irujo izanen dituzte zain A multzoan, eta Arretxe II.a eta Bengoetxea VI.a B multzoan. Multzo bakoitzeko bi pilotari onenak azaroaren 24ko finalerdietarako sailkatuko dira. Aldaketarik ezean abenduaren 8an jokatuko da final handia.

Estrategia findu

Joseba Ezkurdiak igandean, urriaren 20an, Mendizabal III.aren kontra jokatuko du Eibarko Astelenan (ETB1). Lehia estua aurreikusten da, eta irabazleak Retegi Bi du zain hurrengo fasean.

Partida honetan errebantxa lortzeko aukera du arbizuarrak, baina horretarako aurreko ostiralean Lau t´erdiko atarikoan Aitor Mendizabalen kontra egindako akatsak zuzendu beharko ditu. Orduan Ezkurdiak ez zuen jakin duen potentziala eta dituen baliabideak behar bezala aprobetxatzen. Boleoan, airean eta erasoan akatsak egin zituen, gipuzkoarrari airea eman zion eta Mendizabal bere gainetik pasa zen. Ea igandean arbizuarrak irabazi eta lau t´erdian jarraitzen duen. Lehiaketako 2. jardunaldian Retegi Bi, Xala, Barriola eta Titin sartuko dira lehian.

Beste aukera bat du arbizuarrak.

Aizkora

Nazabal EHko finalera

EHKO FINALERAKO SAILKATU DA OTAÑO, AZURMENDI, REKONDO, ATUTXA ETA OLASAGASTIREKIN BATERA

EHko maila nagusiko kanporaketa

1.	Floren Nazabal	16:11
2.	Unai Otaño	16:48
3.	Iñaki Azurmendi	17:27
4.	Jon Rekondo	18:17
5.	Aitzol Autxa	18:32
6.	Jose Mari Olasagasti	18:47
7.	Jon Irazu	19:02
8.	Jesus Mari Mujika	19:30
9.	Ander Erasun	19:47
10.	Antonio Senosiain	20:22
11.	Luis Txapartegi	21:29

Asteasuk Euskal Herriko maila nagusiko Aizkora Txapelketako kanporaketa hartu zuen larunbat arratsaldean. Azkenean 11 aizkolari lehiatu ziren, Joseba Otaegi ezin baitzen aritu, lesio bat tarteko. Aizkolariek ondoko lana egin behar izan zuten: 54 ontzako bi enbor, 60 ontzako bi enbor eta 72 ontzako bi enbor erdibitzea.

Egungo txapeldun Floren Nazabal zen faboritoa eta etxarriarrak ez zuen huts egin. Azkarrena izan zen (16:11), Unai Otañori 34 segundo atereaz (16:48). Egia esan, ez zen aparteko sorpresarik izan, eta lehendabiziko sei sailkatuek lortu zuten abenduaren 8an Elgoibarren jokatuko den final handirako sailkatzea, Nazabalek, Otañok, Azurmendik, Rekondok, Atutxak eta Olasagastik. Seiek 19 minutu baino gutxiagotan egin zituzten lanak. Bestalde, Luis Txapartegi izan zen azkena, eta maila galdu du. 2014an 2. mailan aritu beharko du. Aldiz, azkenaurrekoak, Antonio Senosiainek, Joseba Otaegiren kontra jaitsiera proba jokatzeko aukera izango du.

Euskal Herriko 6 txapel ditu etxarriarrak, eta 7.a lortzeko faborito nagusia dela erakutsi zuen larunbatean Nazabalek.

Nazabal Nafarroako kanporaketan.

Mendi lasterketak

Sakandarrak Anboto Km Bertikalean

Anboto Km Bertikala (3,8 km).
Sakandarrak:

1.	Iñigo Lariz	40:26
32.	Adur Maiza (Etxarri A.)	49:40
33.	Mikel Satrustegi (Arruazu)	49:48
44.	Mikel Berastegi (Arbizu)	50:48
48.	Julen Paniagua (Urdiain)	51:02
56.	Juanjo Goikoetxea (Uharte A.)	51:26
70.	Alatz Agirre (Altsasu)	53:02
79.	Juan Felipe Lizarraga (Irurtzun)	54:20
121.	Iraitz Senar (Lakuntza)	58:29
127.	Mikel Iriarte (Arbizu)	59:26

Larunbatean jokatu zen, Arrazolan, Anboto Km Bertikala. Bertatik Anbotora igotzea zen erronka, 3,8 km aldapatsu eta malkartsu gainditzea. 193 korrikalarik osatu zuten proba eta Iñigo Lariz elgoibartarra izan zen azkarrena (40:26), Anartz Etxeberriari 11 segundo aterata. Hainbat sakandar lehiatu ziren eta Adur Maiza etxarriarra izan zen lehena. Maiza 32.a izan zen helmugan (49:40).

Irristaketa

Villalobos eta Lapuente.

Lapuente eta Villalobos bigarrenak Amaya Trofeoan

Larunbatean irristaketako Amaya Trofeoa jokatu zen Iruñean. Sakana Irristaketa Taldeko Iratxe Lapuente bigarrena izan zen mini mailan eta Ander Villalobos bigarrena benjaminetan. Bestalde, urriaren 19an bukatuko da denboraldia. Txikien Ligan parte hartu duten irristalari guztiek trofeoak eta diplomak jasoko dituzte, tartean irristalari sakandarrek.

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

3. MAILA

8. JARDUNALDIA

TXANTREA 1 – LAGUN ARTEA 0
Bi taldeak paretsu ibili ziren eta nahiz eta 3 puntuak Txantrean geratu, Lakuntzara lasai asko etor zitezkeen. Bigarren zatian bi taldeak gogotsuago zelairatu ziren. 80. minutuan Txantrelak gola sartzea lortu zuen, falta baten ondoren. Lagunekoak partida berdintzen saiatu ziren eta baloi guztiak borrokatu zituzten, baina nahiz eta zuten guztia eman, ez zuten golik sartzea lortu.

Sailkapena >>

1.	San Juan	**18 p**
13.	Lagun Artea	**10 p**

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA – IRUÑEA
(Larunbatean, 16:45ean, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

5. JARDUNALDIA

BAZTAN B 1 – ALTSASU 1
KIROL SPORT 1 - ETXARRI ARANATZ 0
LAGUN ARTEA B 2 - BETI KOZKOR 2
Baztanen jokatutako lehian, Altsasuko taldeak esperientzia gehiago eta talde landuagoa aurkeztu zuen. Baztandarrak aurreratu ziren partida hasi eta berehala. Altsasuk gehiago presionatu zuen bigarren zatian, Horrela, Berastegik berdinketaren gola lortu zuen. Irabazteko zorian egon zen Altsasu, pena hori lortu ez izana.
Orkoienen partida nahiko kaxkarra izan zen Kirol Sportek eta Etxarrik jokatutakoa. Lehen minutuan aurreratu zen Kirol Sport. Etxarri saiatu zen, baina ez zituen aukerak ongi aprobetxatu eta 3 puntuak Orkoienen geratu ziren.
Lagun Artea Bk eta Beti Kozkorrek Lakuntzan jokatutako partida emozio handikoa eta oso lehiatua izan zen. Hasieran 2-0 aurreratu zen Lagun Artea B, baina Beti Kozkorrek berdintzea lortu zuen. Lagunek garaipena lortzeko aukerak izan zituen baina puntu banaketarekin despeditu zen lehia.

Sailkapena >>

1.	San Jorge	**10 p**
5.	Altsasu	**7 p**
10.	Etxarri Aranatz	**4 p**
15.	Lagun Artea B	**1 p**

Asteburuko jardunaldia

ALTSASU - ERROTXAPEA
(Larunbatean, 16:30ean, Altsasun)
ETXARRI ARANATZ – LAGUN ARTEA B
(Larunbatean, 16:15ean, Etxarri Aranatzen)

Etxarrikoak partida hasi baino lehen.

Motoziklismoa

Mariñelarena 20.a Sepangen

Sepango zirkuituak hartu zuen Munduko Motoziklismo Txapelketako Malaisia Sari Nagusia. Moto 2 mailan Alex Mariñelarena lehiatu zen, (Blusens Avintia, Kalex). Entrenamenduetan klasifikazio txarra egin zuen irurtzundarrak, arazo mekaniko bat eta bi erorketa tarteko. Horrela, 24. postutik hartu zuen irteera lasterketan eta, zorionez, irteeran egon zen erorketa ekidin ahal izan zuen. Mariñelarenak ez zuen arriskatu nahi izan eta lasterketa 20. postuan bukatzea lortu zuen, 4 postu aurreratuta.

Esteve Rabatek irabazi zuen proba (25:45.411), Pol Espargaróri segundo pasa aterata. Mariñelarena 20.a sartu zen, 36.012ra. Mundialean Scott Redding da liderra (224 puntu), Espargaró oso gertu duela (215 puntu).

Asteburuan Australiara

Australiako Philip Island zirkuituan jokatuko da Munduko Motoziklismo Txapelketako hurrengo proba, urriaren 20an, igandean. Aurretik, gaur entrenamendu libreak izango dira eta bihar entrenamendu ofizialak. Mariñelarenak egindako lana sendotzea du helburu. Proba Telecinco katean jarraitu ahalko da.

Mariñelarena Australian dago. FACEBOOK

Txirrindularitza

Agur Euskaltel!

Sakandarrak etorkizuna airean

6 sakandar dira Euskalteleko kide: Gorka Verdugo, Egoi Martinez, Pablo Urtasun eta Jorge Azanza txirrindulariak, Oscar Guerrero kirol zuzendaria eta Ibai Jimenez masajista. Azken orduko berririk ez badago, aipatutakoek ez dute talde berririk aurkitu eta etorkizuna airean dute. Aurretik Igor eta Iker Flores urdiaindarrak ere aritu ziren talde laranjan.

Talde laranjak asteartean azken pedalkadak eman zituen Txinan. 20 urteko ibilbideari agur esan zion Euskaltelek Beijingo Tourrean, Movistar taldeko Beñat Intxaustik –talde laranjako txirrindulari ohia– irabazitako proban. Alvaro Gonzalez de Galdeanoren zuzendaritzapean, Mikel Landa, Mikel Astarloza, Garikoitz Bravo, Ricardo Garcia, Juanjo Oroz, Juanjo Lobato, Pablo Urtasun urdiaindarra eta Gorka Verdugo etxarriarra aritu ziren lehian Txinan, talde laranjaren azken alineazioa.

Taldearen desagerpenarekin nazioarteko tropela bere talde beteranoenarik gabe geratu da. World Tourrean aritzeko lau urteko lizentzia lortu zuen talde laranjak aurten. Euskadi fundaziotik kanpo aritu zen aurten Euskaltel, txirrindulari atzerritar batzuk kontratatuz, World Tourrak eskatutako puntuaziora heltzeko txirrindulari hauen puntuak batuz. Baina eztabaida sortu zuen filosofia aldaketa hori ez da nahikoa izan. Krisiak taldea hil du. Bigarren babeslea lortzeko lanek ez zuten fruiturik eman eta taldea desagertuko zela adierazi zuten abuztuaren 20an. Ondoren iritsi zen 1 Formulako pilotu Fernando Alonsok taldearen lizentzia erosi zuenaren berria. Baina hori ere espejismo hutsa izan zen, azkenean ez baitzen gauzatu.

Tamalez, 20 urteko historia pikutara joan da. Euskaltel-Euskadi ez zen ohiko txirrindulari taldea. Euskal Herriko txirrindulariek non aritu zuten bertan, txirrindulari euskaldunen harrobirako ezinbestekoa zen, profesional mailara saltoa emateko plataforma bikaina. Orain zer? Euskadi fundazioaren jarraipena inoiz baino beharrezkoagoa da. Ea irautea lortzen duen.

Pala

Etxarriko nesken pala eskolak ekin dio denboraldiari

WEB GUNE BERRIA, EKIPAMENDU BERRIA ETA LOGOTIPO BERRIA AURKEZTU DITUZTE

Indarrez hasi dute denboraldia Etxarriko nesken pala eskolako kideek. Urriaren 11n batzarra egin zuten eta taldeko junta berritua aurkeztu zuten. Migel Aristorena eta Saioa eta Yanira Aristorena pala irakasleez gain, zenbait guraso dabiltza lanean junta berrian. Juntak izaera irekia du eta edozeinek har dezake parte.

Aipatu batzarrean, juntak taldearen logotipo berritua, web gune berria eta taldearen ekipamendu berria aurkeztu zituzten. Eta horrekin batera Pala Eskolaren arautegi berria eta urteko plangintza.

Asanbladan denboraldiko xehetasunak aurkeztu ziren.

30 kide

Etxarriko Pala Eskola 2000 urte inguruan sortu zen, Etxarriko neskendako pala sustatzeko asmoarekin, Gure Pilota Eskolaren barruan integratuta. Migel Aristorena izan zen sustatzaile nagusia, Telletxea zenaren laguntzarekin. Gero Saioa eta Yanira Aristorena gehitu zitzaizkien. Egindako lanaren fruitu, egun 8 urtetik gorako 30 neska entrenatzen dira Etxarriko Pala Eskolan. Entrenamenduak asteartetan eta ostegunetan egiten dituzte Euskalherriari pilotalekuan, eta taldea erreferente bihurtu da Euskal Herriko pala jokoan.

Ondoko txapelketetan neurtuko dira: Emakume Pilotari Txapelketa, Nafar Kirol Jolasen Joko Eskolarrak, Sakanako Pala Txapelketa, Nafarroako Pala Txapelketa, Euskal Herriko Kluben Liga, Emakumeen Napar Pala Txapelketa, Napar Pala Txapelketa eta GRAVN txapelketan, Nafarroako selekzioan parte hartuz. Horretaz gain, herriz herri sor daitezkeen txapelketetan.

Logotipoa eta ekipamendu berria

Taldearen logotipoa Andre Ansotegi eskolako pala jokalariak egin zuen duela urte batzuk, eta Napal diseinatzaileak berritu eta digitalizatu du. Neska baten aurpegia duen pala bat da, pilota ondoan duena. Halaber, kartel eredua ere diseinatu du eskolak.

Bestalde, aurten Etxarriko palistek ekipamendu berria erabiliko dute: bi kamiseta berri, bat urdina eta bestea gorria, eta kirol-jertse edo sudadera beltza bat, kremailera-duna. Taldearen babesle nagusia den Baiza Motor enpresaren irudia darama. Orain arte zituzten jantziak entrenamenduetan erabiliko dituzte eta ekipamendu berria, aldiz, txapelketetan.

Lizarragako festetan

Lizarragako San Klemente festetan, azaroaren 24an, Etxarriko Pala Eskolak jaialdia eskainiko du Lizarragan, aurkezpen moduan.

www.pilotarianaun.net

Etxarriko nesken pala eskolaren web gunea. Pala eskolari buruzko informazioa eta argazkiak jarriko dira eta txapelketetako egutegiak.

Areto futbola

Gaztetasunaren indarraz ekin dio Magna Nafarroak denboraldiari

INOIZ BAINO IRURTZUNDAR GEHIAGO, 6 GUZTIRA, DAUDE ARETO FUTBOLEKO MAILA GORENEAN: DANI SALDISE, JAVIER SALDISE, IÑIGO AMEZKETA, ASIER LLAMAS ETA ROBERTO MARTIL JOKALARIAK ETA IMANOL ARREGI ENTRENATZAILEA.

Testua eta argazkiak: Maialen Huarte

Ohi baino gazteagoa da aurtengo Magna Nafarroa Xota areto futbol taldea. Inoiz baino gehiago harrobiaren aldeko apustua egin du Irutzungo taldeak, batez ere egoera ekonomiko zailak bultzatuta. Gaztetasunak onurak bezainbeste kalte eragin diezaioke taldeari, baina duten onenari indar ematen jakin behar zaiola uste dute taldekideek. Horregatik, lan gogorra dute aurretik denboraldia ongi amaitu nahi badute. Entrenamenduetan buru belarri aritzea eta egoera fisikoa mantentzea izanen da funtsa. "Irabazteko gosez gabiltza eta denboraldia ongi bukatzeko ilusioz", adierazi du Roberto Martil taldeko kapitain irurtzundarrak. Taldekideen artean inoiz baino elkar ulertze handiagoa dute: "entrenatzailearekin askatasun osoz hitz egiten dugu eta adostasunetara heltzen saiatzen gara; baita gure artean ere". Hurbilekoa da jokalarien eta entrenatzailearen arteko harremana Martilen ustez.

Xotan aritzea, egi bihurtutako ametsa

Magna Nafarroa Xotan jokatzea horixe da irurtzundarrentzat: haur zirenetik amestutako nahia. Ametsa egi bihurtu da askorentzat. Bost urtetatik daramate askok areto futbolean jokatzen eta ohorezko mailara iristea pentsa zezaketen onena dela diote: "ametsa bete dugula esan daiteke eta are gehiago herriaren ordezkari gisa bada".
Areto futbola hautatu zuten gehienek eskolaz kanpoko kirol gisa. Astean bitan joan ohi ziren entrenamenduetara. Beste batzuek, ordea, futbola nahiago izan zuten haurrak zirenean, baina, herriak areto futboleko taldea izanda aldatzeko erabakia berehala hartu zuten. Herrian bertan aritzen ziren, bertako kiroldegian. Irurtzungo aretoan hezi dira guztiak. Txikitako erronka orain lortu dute, baina beste xede asko gelditzen zaizkie betetzeke. Lehen mailari eustea da lehentasuna, noski. Are gehiago, lehen zortzien artean gelditzea lortu nahi dute, play off-etarako sailkatzeko. Arerio gogorrenak El Pozo talde murtziarra, Barça eta Inter ikusten dituzte. Gainontzekoen artean orekatuago dago maila. Ezinezkorik ez dagoela sinisturik, bidea egiten hasi dira: "Galtzen ditugun partidetatik ikasten jakitea da garrantzitsuena orain, eta irabazitakoetatik onenarekin gelditzea".

Taldeko irurtzundarrak

Sei izanen dira aurten Magna Nafarroa taldeko irurtzundarrak, horietako bost jokalariak: Dani Saldise, Javier Saldise, Iñigo Amezketa, Asier Llamas eta Roberto Martil. Entrenatzailea bera ere irurtzundarra da, Imanol Arregi. Lantalde teknikoko kideak ere irurtzundarrak dira. Guztiak harro daude herriko taldean partaide direlako eta lehen mailan jokatzen dabiltzalako. Pozik, talde gaztea, indartsua eta boteretsua osatu dutelako. Pixkaka-pixkaka taldeko iritsi berriak ari dira Magna Nafarroa Xotaren nortasuna ezagutzen eta berezkoa duen nortasun hori galdu gabe jokatzen ari direla nabarmendu dute. Oraindik asko dute hobetzeko, baina gogotsu datoz gazteak Martilen esanetan: "ikasteko grina dute denek eta entrenamenduetan antzematen da, orain norgehiagoketan erakustea falta zaigu".

Lehian dabiltzanean afizioaren babesa sentitzea ezinbestekoa dela nabarmendu dute jokalariek: "Anaitasunan Nafarroako Unibertsitate Publikoko aretoan baino hurbilago dugu ikuslegoa eta igartzen da berotasun hori". Irurtzungo bizilagun gehiago joaten da Anaitasunan jokatzen dituzten lehiak ikustera eta hori eskertzekoa da jokalariengandik: "babesak indarra ematen digu eta sartzen diguten golen aurrean aurrera jarraitzeko gogoa handitu zaigu, ez gaituzte burumakur ikusi nahi". Fisikoki ezin dira kexatu. Gaztetasunak ere onura hori badakarrelako: entrenamenduak betetzearekin ia segurtasun guztiarekin iraun dezakete partida osoa ehuneko ehunean.

Jokalariak kontentu entrenatzailearekin

Irurtzungo bost jokalariek nabarmendu dute Imanol Arregi entrenatzailearekin duten harremana ezin hobea dela: "sortzen zaizkigun kezkak esaten dizkiogu, zalantzak planteatu eta kexak ere ongi hartzen ditu, eztabaidatzeko prest azaltzen da beti". Bakoitzak bere lekuan jartzen dakien arren, konfiantza osoa dute entrenatzailearengan. Horrek asko laguntzen du taldearen osasun onean. "Taldeak osasuntsu iraun dezan ezinbestekoa da guztion artean erlazio ona izatea, errespetua mantentzea eta batzuen eta besteen abilidade eta ahuldadeak zeintzuk diren jakitea, eta horiei aurre egitea edo nabarmentzeko aukera ematea", esan du Martilek.

Urriaren 21ean emanen diote Ramon Cobo saria Imanol Arregiri, Ohorezko Mailako areto futboleko entrenatzaile onena izateagatik. "Merezitako saria jasoko du. Urteotan guztiotan erakutsi du ofizioz egiten duen lana izatea baino gehiagogatik dela entrenatzaile". Asmo onez eta duen onena erakusten duen entrenatzailea dela uste dute jokalariek.

Imanol Arregi: "ohorea da niretzat irurtzundarrei aukera ematea goi mailan jokatzeko"

Imanol Arregi entrenatzaileak badaki aurten zailagoa izanen dela partidak irabaztea, taldearen gaztetasunak ezjakintasuna ere badakarrelako: "Pausoka-pausoka egin behar dugu aurtengo bidea, ahalik eta puntu gutxien galtzen eta geure burua babesten". Denboraldiaren hasieran nabaria da taldekideen esperientzia falta, baina era berean gogotsu ikusten ditu jokalariak Arregik: "indarra ez da falta, ikasteko gogoa ezta ere. Hortaz, aurkarien aurrean erakutsi egin behar da Magna Nafarroaren indarra".

Imanol Arregi.

Datorrena: Jaen

Aurreko ostiralean Magna Nafarroa kamiseta estreinatu zuen Xotak etxean, eta zortea eman zien babesle berriaren izenarekin jolastea, 7-4 irabazi baitzioten Gran Canaria taldeari. Aldiz, astearteean, Lugon, Azkar Lugok 7-4 irabazi zion Irurtzungo taldeari. Magna Xotak ez zuen gaizki jokatu, baina akats ugari egin zituen eta kontrako atean ez zuten asmatu. "Akats asko egin ditugu. Defentsa akatsak zuzendu behar ditugu; hori da gakoa. Lan egitea da geratzen zaigun bakarra" adierazi zuen Imanol Arregi entrenatzaileak bukaeran.

Orain datorren partida prestatzen dabiltza buru-belarri. Bihar, larunbatean, 18:00etan, Jaen hartuko dute etxean, Anaitasunan. Orain arte jokatutako 5 partidetatik 3 galdu dituzte irurtzundarrek eta egoerari buelta ematea inportantea da. Horretarako, Anaitasunan afizioaren babesa sentitzea garrantzitsua da, bai entrenatzailearentzat bai jokalarientzat ere, eta babes hori nabaritzen dutela aitortu digute. Guztiak gara berdeak! Aupa Magna Nafarroa Xota!

Badute babesle nagusia: Magnesitas Navarras

Magna Nafarroa izenarekin jokatuko du Xotak

Denboraldia babesle nagusirik gabe hasi ondoren, Xota Nafarroari iritsi zaio bere kamiseta berdea babesle nagusi baten irudiz tindatzeko garaia. Xotak eta Magnesitas Navarras enpresak urte baterako hitzarmena sinatu dute eta Zubiriko enpresa izango da Ohorezko Mailan lehiatzen den talde irurtzundarraren babesle nagusia.

Akordioak lasaitasun handia eman dio Xotari baina ez erabatekoa, aurrekontua guztiz estaltzeko babesle txikiagoak beharko baititu Tatono Arregik zuzentzen duen klubak.

Atzera begiratu akatsak zuzentzeko

Aurten taldean ez dago atzerriko jokalaririk. Bi brasildarrei ezin izan diete kontratua berritu eta Iraitz, atezainari ere ez. "Antzematen dugu jende ona falta dela gure artean, baina egoera ekonomikoaren aurrean ezin izan genuen deus gehiago egin" dio Imanolek. Zailenean ere aurrera begiratzen jakin behar dela argi du entrenatzaileak eta daudenekin partidetan amorru guztia ateratzen ahaleginduko direla.

Lehen mailari eustea

"Anbizio handikoa naiz, baina errealista izanda, lehen mailari eustea izanen da xedea". Hori lortuta, lehenengo zortzien artean egotea gustatuko litzaioke Arregiri, "orain arte bezala". Hori lortzeko aukerak badirela uste du. Aurkarien artean hiru ikusten ditu irabazten zailenak: "aurrekontua laukoiztu egiten digute Barćak, Interrek eta El Pozo taldeek eta horien aurka lehiatzea ezinezkoa da; gainerakoek, ordea, guk dugun mailaren antzekoa dute eta norgehiagoka politak izanen dira".

Fisikoki taldea ongi ari da. Gai dira partida osoan indarrean aritzeko eta tinko erakusteko taldea ez dela nolanahikoa. Hori denboraldi osoan mantentzeko sekreturik ez dagoela dio: "egunero entrenatzera etorri eta fisioterapeutak jarritako dieta jarraitu". Konfiantza hartu behar du taldeak aurkariaren aurrean ez kikiltzeko.

BALIOAK IKUS-ENTZUNEKOEN BIDEZ: Helburu hori du Iruñeko Zinema Jaialdiko Educactif sailak. Ikasleei zuzenduta dago eta zinema solidarioa (dokumentalak eta fikzio lanak) du ardatz. Atzo eta gaur Altsasun.

kultura >>

Altsasuko feriak objektibotik

Mendigoizaleak taldeak antolatutako argazki rallyaren 28. edizioa jokatuko da. Argazkilari interesatuek www.altsasukomendigoizaleak.com atariaren bidez edo egunean bertan talderen egoitzan (Erkunden, 8) eman dezake izena 9:00etatik 11:00etara. Helduek 10 euro ordaindu beharko dituzte, haurrek 5.

Carbonell, gertutik

Gaur, 21:30ean Irurtzungo kultur etxean

La Cangrenosa gitarra aldean duela agertuko da gaur jendaurrean Kadizko artista. *Canciones de Cerca* argitaratu duen disko berriko kantuak aurkeztuko ditu. Betiko moduan musikarekin batera, zorroztasuna eta gatz handia erakutsiko du ziurrenik Pablo Carbonelek. Horretarako satira eta kritika soziala ezinbesteko elementuak izanen dira.

Gaztelumendi, Altsasutik aurrera

Makina bat sakandar tartean zirela, Burunda pilotalekua errimaren jokoko lehiaketa nagusiko lekuko izateko lepo bete zen. Bertsolari bakoitzaren zalegoa hasieratik nabarmendu zen. Saioari dagokionez, serio ekin zioten bertsolariek eta aurrera egin ahala umoreari ere heldu zioten. Zortziko txikiarekin izan zen hori. Puntuka ere bertso politak entzun ziren. Aurretik, emandako gaiei heltzeko zailtasun batzuk izan zituzten zenbaitek. Beñat Gaztelumendi Arandiak, gainontzeko bost bertsolarien modura, kartzelakoan eman zuen onena.

Sailkapena: Beñat Gaztelumendi 695,5, Jexux Mari Irazu 666,5, Xabier Silveira 652,5, Unai Agirre 650,5, Erika Lagoma 622,5 eta Oihane Perea 602

Sakanako arte azoka Altsasun

Ibarreko sortzaileen lana ezagutzeko aukera paregabea

Gaurtik azaroaren 8ra arte, astegunetan, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean

Aurreko urtean sortu zen arte azoka, Artebide deiturapean bildutako Altsasuko artista talde baten ekimenez. Joan den urtean bezala arte azokaren helburuak dira ibarreko artistek sortzen dutenaren erakusleihoa izatea eta, horrekin batera, artea sartzeko eta erakusteko azoka sortzea. 26 artista sakandarren lanak izanen dira ikusgai, eta salgai. Eta haiekin batera, 5 sortzaile gonbidatu ere izanen dira.

Arteko hainbat arlotan bidea egiten ari diren sortzaileekin batera, itzala duten egile sakandarren lanak ikusteko aukera izanen da. Altsasuko II. Arte Azokatik pasatzen direnek margolanak, eskulturak, serigrafiak, grabatuak, irudi digitalak, argazkiak, bideoak eta beste ikusteko aukera izanen dute.

Aurreko urtean 28 artistaren lanak izan ziren ikusgai (24 sakandar eta 4 kanpotar) eta bisitari mordoa izan ziren kultur gunetik pasa zirenak. Arrakasta hori errepikatu eta salmentak handitzea nahi lukete antolatzaileek. Espazioa muga bada ere, etorkizunean Sakanako artista guztien lanak erakutsi nahi lituzkete azokan.

Artistak

Jose Ramon Anda, Mikel Okiñena, Asun Goikoetxea, Helena Santano, Esti Garcia, Koldo Arnanz, Miren Ustarroz, Sagri Mauleon, Jokin Alegria, Itziar Nazabal, Jule Kosta, Manolita Thunders, Bidatz Razkin, Idoia Zufiaurre, Itsaso Alzelai, Beatriz de la Vega, Ana Gopikoetxea, Angel Antonio Agirre, Argiñe Berastegi, Maider Percaz, Carlos Rivera, Jose Mari Morcillo, Joseba Salegi, Jabi Trapero, Elena Vera eta Adela Sanchez.

Gonbidatuak

Patricia Paats (Madrilen bizi den argentinarra), Belen Arebalo (Iruñea), Iñaki Rifaterra (Donostia), Txefo Mendez (Araia) eta Jon Juarez (Iruñea).

bazterretik

Irune Reparaz Mendoza

Modaren atzean

Moda hitza erabiltzen dugunean, pasarelak etortzen zaizkigu burura gehienbat, baina zer dago guzti honen atzean? Erraza da pentsatzea diseinu batentzat marrazki pare bat egitea nahikoa dela, baina gauza asko hartu behar dira kontutan diseinatzen jarri baino lehen.

Hasteko, diseinatzaileak aukeratutako gaiaren inbestigazio sakon bat egitea ezinbestekoa da. Kolekzio bakoitzak oinarri teoriko bat izan behar du eta diseinu bakoitzaren atzean arrazoi bat dago. Pausu hau ez bada ematen, lan guztiaren koherentzia bertan behera geratuko da. Gaiari buruz jakin beharreko guztia bildu ondoren ideiak botatzeko ordua iristen da, eta proposamen guztietatik gutxi batzuk aukeratzen dira. Ondoren patronatzeko garaia dator. Pausu hau garrantzitsuenetariko bat da, beraz, hemen perfekzioa eskatzen da. Patroiak arroparen eskemen antzekoak dira, eta milimetro guztiak lupaz begiratzea ezinbesteko lana da hauek gaizki egonez gero, ezinezkoa izango baitzen beranduago pieza guztiak elkartzea.

Josten hasi baino lehen, argi izan beharko dugu erabili behar den ehun mota, honen arabera modu batera edo bestera egiten baita lana. Ehun fina baldin bada, kontu handiagoarekin ibili beharko ginateke, erabilitako orratza lodiegia izatean josten ari garen pieza tolestu edo hondatu daitekeelako. Ehuna lodiagoa bada, ordea, lana asko errazten da, hala ere, erabiliko den orratza aukeratzerakoan kontutan hartu beharreko datua da. Jantziak duen jostura bakoitzeko diseinua nolakoa den argi jakin beharko dugu, honen arabera jostura mota bat edo beste bat erabiltzen baita. Prozesuak aurrera egiten duen heinean gomendagarria da ehuna lisatzen joatea, lana asko errazten baitu.

Jostez bukatzean, eginiko guztia promozionatzeko garaia iristen da. Diseinatzaile bakoitzak nahi duen moduan egin dezake, ohikoena pasarelarena izanda ere. Hala ere, badaude profesional asko beste baliabide batzuk erabiltzen dituztenak beraien lanak ezagutzera eramateko, adibidez bideoak.

Guzti honekin ikusi daiteke moda egiteko prozesua oso luzea eta lanpetsua dela, kontutan hartu beharko baitugu pauso bakoitzaren atzetik egin beharreko lanean espezializatuta dauden pertsonak daudela.

Gasteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria:	4%	15%	10%	13%	20%	15%	20%
Min:	15	15	13	12	16	12	13
Max:	25	21	20	21	19	20	20

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	23.9	-0.1	3.6
Altsasu	24	2	9.2
Aralar	15.9	0.4	12.4
Urbasa	21	-1	16

: ilargiaren aldia>>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
18	26	3	10

>>11 galdera



Elkarrizketa osorik www.guaixe.net-en.

Mikel Navarro
Argia ikastolako irakaslea

Testua: Eneida Carreño eta Maider Betelu

Gaur, ostiralean, Beleixe irratian (107.3 FM) entzungai, 11:00etan

1.Igandean Nafarroako ikastolen egun handia Tuteran, *Taupadaz bat egin!* lelopean. Taupadak bizkortuta?
Bai. Gutxi falta da eta hemen gaude taupadak topera ditugula.

2.Zergatik irakasle Tuteran?
Urte bat eman nuen Suedian, hango eskola batean irakasle. Handik bueltan, nahiz eta beste aukera batzuk izan, Tuterara etorri nintzen. Bertako ikastolako egoera ikusita, erronkarik politena eta zailena iruditu zitzaidan. 4 urte egin ditut. Ikastola txikia denez, haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan ingelesa ematen dudan irakasle bakarra naiz. Ikastolan 200en bat ikasle daude eta nik erdiei ematen diet.

3.Ume askok kilometro asko egin behar izaten dituzte Erriberan euskaraz ikasteko.
Erribera guztiko haurrak biltzen ditu Argiak. Askok km asko egin behar dituzte, txiki-txikiak direla. Halako palizak egunero… sekulako meritua daukate. Hemengo egoera penagarriaren ondorioetako bat da.

4.Tutera Vascuencearen Legearen arabera eremu ez euskaldunean dago. Zer ondorio ditu horrek?
Asko. Vascuencearen Legearen ondorioz, ikastolak dituen laguntzak urriak dira, eta gurasoek ikaragarrizko ahalegina egin behar dute beraien seme-alabak euskaraz ikasi ahal dezaten. Gertatu izan da guraso batzuk langabezian egotea eta haurra ikastolatik atera behar izatea. Eta umeak ezin du publikoan euskaraz ikasi. Ume horri euskaraz ikasteko eskubidea ukatzen ari zaio. Eta gero hemen jartzen dituzte kolegio ingelesak, TIL ereduak… inongo arazorik gabe. Beraiei diru laguntzak emateko ez dago arazorik. Baina euskarak bata bestearen atzetik traba eta oztopoa.

5.Argia ikastolak zeregin handia du Tuteran?
Bai. Nik esango nuke ikastola hau dela ume askok euskara eta euskal kulturarekin bat egiteko modu bakarra. Erreferente nagusia da.

6.Horrelako ikastola batean lan egiteak zer ematen dizu?
Ikastolak egun bat gehiago irautea garaipen bat da guretako. Zailtasun guztien gainetik ikastolak aurrera egitea eta proiektu honetan sinistea eta aurrera segitzea asko da. Hori da ematen didana. Egoera latzetan ikusten da gurasoen konpromisoa, aurrera ateratzeko grina hori. Gure miresmen osoa merezi dute eta beraiek dira nik dauzkatenak erreferente bezala aurrera egiteko.

7.Erriberarekiko sentiberatasun hori euskaltzale guztiengana heltzen da, ez?
Hori da asmoa. Egia esan, ni horrengatik etorri nintzen Tuterara. Gure herriak beti erantzuten du ongi holako gauzen aurrean eta konfiantza dut igandean jende asko etorriko dela. Lanez lepo gaude. Dena da urduritasuna, lana, ilusioa, kezka… eta aurrera segitzea. Ateratzen dena ateratzen dela, aurrera segitu behar dugu.

8. Halako festa bat lan karga handia da.
Bai, eta ikastola txiki batendako gehiago. Ni 2 komisiotan nago, beste batzuk hirutan… Hemen gauzak ilusioz egiten dira, bitartekorik gabe baina ilusioarekin segitzen dute aurrera.

9. Lortutako dirua nora doa?
Gurea ikastola txikia da baina zorra ikaragarria duena, eta zor hori ahalik eta gehien kitatzea da helburua. Argia, baldintza hauetan, beti izango da defizitarioa. Ikastolak bizirautea dago jokoan. Arrisku hori dugu.

10. Zergatik gonbidatuko zenuke jendea?
Gure Oinez xumeak asmorik handienak dituelako. Etorri hona! entzun nion bati. Eta pentsatu nuen: galdetzen badidate nik ere hori esan behar dut.

Hemengo egoera ikustean askotan etsitu egiten zara, ez bakarrik euskara ez delako kalean entzuten, ikusten dituzun jarrera antieuskaldunengatik ere. Hemen helburu handirik ezin dituzu jarri, pixkanaka joan behar zara. Geroz eta gazte euskaldun gehiago topatu ahal dituzu Tuteran, alor desberdinetan lanean, ikastolan ikasiak. Beraiengana euskaraz zuzendu ahal zara eta euskaraz erantzuten dizute. Hau duela urte batzuk ezinezkoa zen. Eta hori ikastolaren lanaren fruitua da. Horrengatik harro sentitu behar dugu, hori da gure garaipenik handiena. Pixkanaka bagoaz gure sare hori osatzen eta hedatzen. Gauza txiki horiei balore handia eman behar zaio.

11. Zorte on iganderako. Ziur Sakanak Tuterarekin taupadaz bat egingo duela!
Ea hala den! Ostiraletik muntatze lanak egitera etortzeko deialdia dago eta badakigu jendea etorriko dela. Igandean ongi pasa denok! (Informazio guztia: www.nafarroaoinez.net).